# Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea

(testu bateratua)[1]

ATARIKOA

I.

Konstituzioaren 38. artikuluan enpresa-askatasuna aitortzen da, beti ere merkatuko arauen ekonomia baten baitan; eta aginte publikoek askatasun hori babestuko dutela esaten da, ekonomiak orokorrean dituen eskakizunekin eta, hala behar duenean, planifikazioaren eskakizunekin bat. Merkatu-ekonomiaren ezaugarri bereizgarrietako bat enpresen arteko lehia bideragarria egotea da, horri esker enpresen jarduera zorroztu eta produkzio-baliabideak operadore edo teknika eraginkorrenen eskuetan geratzen direlako. Produkzioaren eraginkortasun horri esker, kontsumitzaileak gutxiago ordaindu beharko du, edo produktu gehiago, askotarikoagoak eta kalitate hobekoak eskuratuko ditu, eta ondorioz, gizarte osoaren ongizateak gora egingo du.

Testuinguru horretan, orokorrean onartzen den kontua da lehia defendatzeak gero eta garrantzi handiagoa daukala, gaur egungo politika ekonomikoaren osagai pisuzkoenetako bat bihurtu baita lehia hori. Eskaintzaren arloko politiketan, lehia defendatzea jarduera ekonomikoa arautzearekin zerikusia duten beste ekintza batzuen osagarria da, eta lehen mailako tresna bat da faktoreen produktibitatea eta ekonomiaren lehiakortasun orokorra sustatzeko.

Hori dela eta, sistema bat garatu beharra dago, enpresek erabakiak askatasunez hartzeko duten eskubidean beharrezkoa ez denean esku hartu gabe, tresna egokiak izateko, merkatuko prozesuek ondo funtzionatzen dutela bermatzeko.

Helburu hori zuen Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 17ko 16/1989 Legeak eta lege hori oinarri hartuta, beste sistema bat gauzatu da, estatuan lehiaren aurkako jokabideen kontra borroka egiteko eta kontzentrazio ekonomikoak kontrolatzeko dauden bi erakunde administratibo espezializatuak oinarri hartuta: Lehiaren Defentsarako Zerbitzua eta Lehiaren Defentsarako Auzitegia.

Lege hori indarrean sartu zenetik, aldaketak izan dira (horietako batzuk sakonak), eta legea garatzeko hainbat arau ere argitaratu dira. Horrekin batera, Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren

---

[1] **Honako arau hauek aldatua:**

- Ukrainako Gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei, La Palma uhartea berreraikitzen laguntzeari eta beste zaurgarritasun-egoera batzuei erantzuteko zenbait neurri hartu eta luzatzen dituen; merkataritza-sozietateen egitura-aldaketei eta familia-bizitza eta Europar Batasunaren lanbide-bizitza bateratzeari buruzko Europar Batasuneko zuzentarauen transposizioa egiten duen; eta gurasoen eta zaintzaileen lanbide-bizitza bateratzen dituen ekainaren 28ko 5**/2023 Errege Lege Dekretua**
- Arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen eta ustelkeriaren aurkako borrokatzen duen otsailaren 20ko **2/2023 Legea**
- Europar Batasuneko zuzentarauak eskumenei, kapitalen zuritzearen prebentzioari, kreditu-erakundeei, telekomunikazioei, zerga-neurriei, ingurumen-kalteak prebenitzeari eta konpontzeari, langileak nazioz gaindiko zerbitzuak ematean mugitzeari eta kontsumitzaileak babesteari dagokienez transposizioa egiten duen apirilaren 27ko **7/2021 Errege Lege Dekretua**
- Europar Batasunaren finantza, merkataritza eta osasun arloetako zuzentarauak eta langileen joan-etorriei buruzkoak ezartzen dituen maiatzaren 26ko **9/2017 Errege Lege Dekretua**
- 2014rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko **22/2013 Legea**
- Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzen duen ekainaren 4ko **3/2013 Legea**
- Ekonomia Jasangarriari buruzko martxoaren 4ko **2/2011 Legea**

defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legea ere onartu zen. Bukatzeko, azken urteotan Europako Batasunean ere aldaketa garrantzitsuak izan dira lehia defendatzearen arloan, eta horren ondorioz, Kontseiluak beste erregelamendu bat argitaratu zuen, 2004ko urtarrilaren 20ko 139/2004 (CE) Erregelamendua, Enpresen Arteko Kontzentrazioak Kontrolatzeari buruzkoa; baina batez ere lehia mugatzen duten jardueren aurkako borroka modernizatzea da aipatzekoa. Horri buruz 2002ko abenduaren 16ko 1/2003 (CE) Erregelamendua aipatu behar da, Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluetan lehiari buruz aurreikusitako arauak aplikatzeari buruzkoa baita.

Testuinguru horretan, lege honen helburua lehia defendatzeko espainiar sistema eraldatzea da, dagoeneko badiren tresnak indartzeko eta tresna eta egitura instituzional onenak eskueran jartzeko, merkatuetan lehia benetakoa izan dadin. Hori guztia Europako Batasuneko arau-sistema berria eta autonomia-erkidegoen eskumenak kontuan izanda egin beharko da, eta azken arlo horretan otsailaren 21eko 1/2002 Legean xedatutakoa bete beharko da, lehia defendatzearen arloan Estatuak eta autonomia-erkidegoek dituzten eskumenak koordinatzekoa baita.

Horretarako, azken hamabost urteotan lortutako esperientzia du abiaburu legeak, estatuko eta Europako Batasuneko arauak aplikatu beharra egon baita lehiaren esparruan, eta bost printzipio argi jarraitzen ditu: operadore ekonomikoen segurtasun juridikoa bermatzea, erabakiak hartzeko independentzia izatea, legea betearazteko ardura duten administrazio-organoek gizartearen aurrean gardentasunez eta erantzukizunez jardutea, lehia murrizten duten jardueren aurkako borrokan eraginkortasunez aritzea, eta sistema osoak koherentzia izaten saiatzea, bereziki, arlo honetan diharduten administrazio-maila guztiak elkarrekiko ondo lotuta egotea.

II.

Legea bost titulutan dago egituratuta, eta hurrenez hurren, ondorengoak arautzen dituzte: gai substantiboak, kontu instituzionalak, Lehiaren Batzorde Nazionala, prozedurazko gaiak eta zehatzeko araubidea.

Lehen tituluan politika honek dituen hiru tresna mota nagusien arlo garrantzitsuak jasotzen dira: lehia murrizten duten jarduerei ezarriko zaien araubidea, kontzentrazioak kontrolatzeko printzipioak eta laguntza publikoen arloko jarraipen nahiz proposamenen sistema.

Lehen kapituluari dagokionez (lehia murrizten duten jokaerei buruzkoa da), legeak hiru ildotan sartu ditu aldaketak, batez ere. Hasteko, argitu eta sinpletu egin dira zehapen-motak. Bigarren lekuan, debekatutako akordioak egoera berezietan baimentzen dituen erregimen batetik lege-salbuespeneko sistema batera igaro da, Batasuneko ereduaz bat. Hirugarren lekuan, lege-salbuespenaren ondorioak eta “de minimis” jokaeren tratamendua argitu dira.

Arau-hauste motei dagokienez, debekatuta jarraituko du enpresen arteko akordioetara iristeak edo nagusitasun posizioaz gehiegikeriak egiteak, eta baita egintza desleialen bidez lehia askea faltsutzeak ere; azken arau-hauste hori zertan den argiago azaldu da. Hala ere, menpekotasun ekonomikoaren gehiegikeriari ez zaio erreferentzia zehatzik egiten, kontu hori 3/1991 Legean, Lehia Desleialari buruzkoan, jasota baitago, eta ondorioz, egintza desleialen bidez lehia askea faltsutzearen baitan sar daitekeelako.

Lege-salbuespenaren sisteman sartzeari dagokionez, legeak ez ditu debekatu baldintza jakin batzuk betetzen dituzten akordioak, Batasuneko arauetan aurreikusitako neurrien bidetik jota. Labur esanda, debekua ez zaie betearaziko lehia murrizten duten egintza jakin batzuei, baldin eta baliabideak banatzerakoan eraginkortasunez jardun eta lortzen diren onurak proportzionalak badira, eta ondorioz, gizarte osoaren ongizateari eragiten badiote.

Sistema aldatzerakoan beste pauso bat ere eman da, lehiaren arloko agintaritzak ez baitu aurrerantzean baimen berezirik emango, eta, beraz, enpresek berek ebaluatu beharko dute hartzen dituzten akordioak legeak dioenaren barruan sartzen diren edo ez.

Segurtasun juridikoa indartzeko asmoz, eta nahiz eta Espainian lehia defendatzeko orduan berezkoa den Batasuneko arauak bete beharra eskatzea ere, legeak berariaz aipatzen ditu Europar Batasuneko erregelamenduak, kategorien araberako salbuespenez ari dela, hain zuzen ere estatuan legezko salbuespen berria aplikatzerakoan. Era berean, gobernuak era horretako salbuespenak onartzeko aukera ere gorde da, estatu kideen arteko merkataritzari eragiten ez dioten akordioen kasuetarako. Bestetik, Batasuneko sistemaren ildo beretik doan sistema bat aurreikusi da, jokabide jakin bati debekuak ezin zaizkiola jarri adierazten den kasuetarako.

Bukatzeko, kapitulu honetan aurreikusitako arau-hauste mota guztietara hedatu da lege mailako arau baten aplikazioaren ondoriozkoak diren jokaeren salbuespena, eta baita “de minimis” deituriko jokaeren salbuespena ere; azken horiek ondorengoak izango dira: garrantzi gutxiago izateagatik, lehiari modu nabarmenean eragiteko indarrik ez duten jokabideak (zein ezaugarri dituzten, lege hau garatuko duten erregelamenduetan zehaztuko da).

Bigarren kapitulua kontzentrazio ekonomikoen kontrolaren inguruko gai garrantzitsuei dagokie, eta legeak hiru esparru nagusitan ditu berrikuntzak. Hasteko, argitu eta hedatu egin du kontzentrazioa kontzeptua, kontrolari begira, eta prozedura “sinplifikatua” zehaztu du lehiari eragiteko aukera gutxiago dituztela uste den operazioen kasuetarako. Bigarrenik, malgutu egin du etendura eragin dezakeen derrigorrezko jakinarazpenen erregimena, administrazioaren aldeko ebazpena ematen ez den artean. Bukatzeko, sendotu egin du Lehiaren Batzorde Nazionalak kontzentrazioak kontrolatzeko orduan duen eginkizuna, mugatu egin du gobernuak horretan duen egitekoa, eta zehaztu egin ditu bi organo horiek erabakiak hartzerakoan jarraitu beharko dituzten balorazio-irizpide garrantzizkoak.

Kontzentrazioa kontzeptuari dagokionez, legeak definizioa ematerakoan, enpresa baten kontrol-egituran “de iure” edo “de facto” aldaketa egonkor bat egon izanari ematen dio lehentasuna, eta definizio horretan, “funtzio guztiekin” parte hartzen duten enpresa denak sartzen dira; eta, beraz, kontzentratiboak eta kooperatiboak diren enpresa guztien tratamendua bateratu egin da. Merkatu-kuotaren atalase-maila berrikusi eta gorago jartzeaz gainera, negozio-bolumena eguneratzeko mekanismo bat ere aurreikusi da, eta horrekin batera, jakinarazpenen sistema “sinplifikatu” bat ere zehaztu da, merkatuetan lehia bideragarria mantentzeari oztopoak jartzeko aukera gutxiago duten operazioen kasurako, tasa murritzagoa dutelako.

Prozedura malgutzeari dagokionez, legeak bere horretan utzi du derrigorrez jakinarazteko erregimena, bertan behera uzteko ondorioa duena, baina kontzentrazioa betearaztea bertan behera uzteko betebeharra indarrik gabe uzteko aukera aurreikusten du, eta hori prozeduraren edozein unetan gainera. Horrekin batera, akzioak erosteko eskaintza publikoen tratamendua Batasuneko tratamenduaren ildo berean jarri da, eta, beraz, etenduraren betebeharrak tituluei dagozkien boto-eskubideak gauzatzeari eragingo die, eta ez eskaintza egiteko aukerari, baldin eta legean jakinarazpena egiteko jarritako epeak bete badira.

Balorazio substantiboa egiteko irizpideei dagokienez, legeak argi eta garbi bereizten ditu Lehiaren Batzorde Nazionalak erabakiak hartzeko jarraitu beharko dituen irizpideak (horiek merkatuetan lehia bideragarria mantentzearen alde egin beharko dute) eta Gobernuak jarraitzekoak izango direnak (kasu horretan gizartearen interes orokorra defendatzearekin izango dute zer ikusia).

Hori hala izanik, batetik, argitu egin dira Lehiaren Batzorde Nazionalak zein gai baloratuko dituen, eta sistematizatu egin dira, beste batzuen artean, gaur egunera arte Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak eta Epaitegiak beren txostenetan kontuan hartu izan dituztenak; eta horrekin batera, zehaztu egin dira

enpresen eraginkortasuna nola aztertuko den, eta mantendu egin da lankidetza eskaintzearen eta lehiari mugak jartzearen balorazioa (kontzentrazioen osagarri izango dena). Bestetik, Ministroen Kontseiluak Lehiaren Batzorde Nazionalarena ez bezalako erabaki bat hartu behar badu, hori zein irizpide garrantzitsuren arabera egingo den ere zehaztu da, eta zerrenda batean jaso dira irizpide zehatzok, nahiz eta zerrenda ez den oso-osoa.

Hirugarren kapitulua laguntza publikoei buruzkoa da. Arlo honetan, Lehiaren Batzorde Nazionalak dituen eskumenak osatu dira, eta, beraz, laguntzak emateko irizpideak lehiaren ikuspegitik aztertzeko aukera izango du, eta horren ondorioz, txostenak idatzi eta gomendioak eman ahal izango dizkie aginte publikoei. Horretarako, Lehiaren Batzorde Nazionalari zenbait informazio eman beharra egongo da, eta autonomia-erkidegoetako organo eskudunek ere parte hartzeko aukera izango dute, berariaz jasotzen baita aukera hori, zenbait txosten igortzearen bidez, hau da, beren eskumeneko autonomia erkidegoetako eta toki-erakundeetako administrazioek emandako laguntzei buruzko txostenen bidez. Hori guztia hala izanik ere, jakina, Europar Batzordeak ere bere kontrol sistema izango du, Batasuneko araubidean aurreikusita dagoenez.

Bigarren titulua eskema instituzionalari buruzkoa da. Lehenengo kapituluan, lege hau ezartzeko eskumena izango duten administrazio-organoak zein diren zehazten da, eta hor berrikuntza nagusi bat dago, estaturako erakunde bakar bat sortu baita, Gobernuarengandik independentea izango dena, hau da, Lehiaren Batzorde Nazionala, eta bere baitan hartuko ditu gaur egun dauden bi erakundeak, Lehiaren Defentsarako Zerbitzua eta Epaitegia, desagertu egingo baitira. Lehiaren Batzorde Nazionalak piramide itxurako egitura du, eta bere baitan bi organo bereizi izango ditu, hau da, Ikerketa Zuzendaritza eta Kontseilua, eta bakoitzak bestearekiko independentziaz eramango ditu aurrera eginkizunak, lehenak instrukzioaren arloan eta bigarrenak ebazpenenean, lehendakariak gainbegiratu eta koordinaturik, eta zerbitzu komun batzuen lankidetza izango du. Bigarren kapituluan, legea betearazteko orduan parte hartzen duten administrazioko organo guztiak koordinatzeko bideak aurreikusten dira, eta baita arautzaile sektorialekin koordinatzeko bideak ere, hain zuzen ere lehiaren arloko politikak koherentziadunak izatea lortzeko, baliabide publikoak eraginkortasunez banatzeko, eta operadore ekonomikoek segurtasun juridikoarekin jarduteko modua izateko.

Bukaeran, jarraibide batzuk zehaztu dira organo guztien arteko harremanak nola bideratu jakiteko, baina, jakina, beste bide informal osagarri batzuk ere adosteko modua egongo da, bakoitzak bere esparruaren baitan dituen eskumenak era egokian koordinatzea lortzeko. Esandakoaren osagarri, jurisdikzio-organoekin elkarlanean aritzeko bideak zehaztu dira, lehia-arauak betearazteko prozesuei begira.

Hirugarren titulua Lehiaren Batzorde Nazionalari buruzkoa da; organo horren eginkizuna lege hau betearaztea eta estatu osoan produkzio-sektore guztietako lehia bideragarria sustatu eta babestea izango da. Gai honi dagokionez, legeak bi kapitulu ditu: lehenengoak Lehiaren Batzorde Nazionalaren inguruko kontu orokorrak arautzen ditu, eta bigarrenak batzordearen zuzendaritza-organoak.

Kontu orokorrei dagokienez, lehenengo kapituluan aipatzen baitira, legeak Lehiaren Batzorde Nazionalaren izaera juridikoa eta jarduteko erregimena zehazten ditu lehenik, eta nola osatzen den eta zein baliabide ekonomiko dituen azaltzen du. Bigarren lekuan, Lehiaren Batzorde Nazionalaren eginkizunak jasotzen dira, bai instrukzioa egin, ebazpena eman edo arbitrajearen arloan dituenak, bai merkatuetako lehia defendatzearen inguruan aholkua eman, sustatu eta armonizatzearen inguruan dituenak ere. Bukatzeko, sekzio batean, Lehiaren batzorde Nazionalak gardentasunarekin eta gizarte-erantzukizunarekin duen lotura aipatzen da, eta batzorde horren jarduera guztiak publikoak izatea eta bere jardunak gizartearekiko duen erantzukizun berezia azpimarratzen dira.

Bigarren kapituluari dagokionez, hau da, Lehiaren Batzorde Nazionalaren zuzendaritza organoei dagokienez, diseinua bi printzipio nagusiren araberakoa da: erakunde honek Gobernuarekiko izango duen irizpide-independentzia, eta instrukzio-aldia eta ebazpena bereiztea. Printzipio horiek kontuan izan behar dute instrukzioa egin eta ebazpena emateko ardura duten organoen jarduerak behar bezala koordinatu beharra dagoela, eta lehiaren arloko politika eraginkorra izan dadila bermatu beharra dagoela, politika ekonomikoaren tresnetako bat den neurrian.

Hori dela eta, Lehiaren Batzorde Nazionalaren zuzendaritza-organoak izendatu eta kargutik kentzeko erregimena zehazten du legeak, eta horren helburua erabakiak hartzerakoan independentea izatea eta, aldi berean, erabakiongatik gizartearekiko dagoen erantzukizuna bermatzea dira.

Bestetik, legeak ezartzen du independenteak izango direla Lehiaren Batzorde Nazionalaren baitako Ikerketa Zuzendaritza eta Kontseilua, instrukzioa egin, proposamenak egin eta ebazpenak emateko orduan. Dena den, zerbitzu eta organo guztien jarduerak bateratuak eta koordinatuak izango direla bermatzen du, Lehiaren Batzorde Nazionalaren lehendakariaren zuzendaritzapean jardungo baitute; lehendakariak hainbat eginkizun izango ditu, langile guztien burua izango baita, ikuskaritzako urte anitzeko planen ardura izango baitu eta Lehiaren Defentsarako Kontseiluaren lehendakaria ere izango delako.

Kontseiluak ebazpenak emateko duen eginkizunak Ikerketa Zuzendaritzak egindako proposamenak izango ditu oinarrian, hain zuzen ere zehapen-espedienteetan edo kontzentrazioak kontrolatzeko espedienteetan esaten dena oinarri harturik. Lehia murrizten duten jokaeren kasuan, Kontseiluak eskumen hauek izango ditu: jarduerak artxibatzea edo largestea erabakitzea, eta, beraz, amaiera konbentzionala izatea erabakitzea, edo debekatzea erabakitzea, kasuan kasuko zehapena jarrita, eta kautelazko neurriak har daitezela agintzea.

Bestalde, Ikerketa Zuzendaritzak aurrera eraman beharreko instrukzio-lanaren baitan, ondorengoak sartzen dira: espedienteekin hasi eta izapidetzea, Lehiaren Batzorde Nazionalaren baitako Kontseiluan proposamenak aurkeztea, txostenak idaztea eta beste organo batzuekin espedienteak esleitzea.

Laugarren tituluak dauden prozedurak arautzen ditu, dela debekatutako jokaerengatik, dela kontzentrazioak kontrolatzeagatik. Esparru honetan, erreformak oreka aurkitu nahi du segurtasun juridikoaren printzipioaren eta administrazioaren eraginkortasunaren printzipioaren artean. Hori horrela izanik, prozedurak nabarmen sinpletu dira, eta garbi bereiztu dira instrukzioa eta ebazpena, eta horri esker jarduerak bikoizteko arriskua saihestu da, eta baita prozedura amaitzen duten egintzen kontrako administrazio-errekurtsoak jartzeko arriskua ere.

Lehen kapituluan, jokabide murriztaileekin, kautelazko neurriekin eta kontzentrazioen kontrolarekin erabiliko diren prozeduretan komunak diren xedapenak jasotzen dira. Zehazki esanda, zenbait arau xeheki agertzen dira, hala nola lege honetan aurreikusitako prozedura bereziei dagozkien ebazpenak emateko gehieneko epeak zeintzuk diren, edo Lehiaren Batzorde Nazionalak zer nolako eskumenak dituen informazioa eskuratzeko, ikuskapenak egiteko nahiz legearen ondoriozko betebeharrak betetzen diren edo ez zaintzeko; kasuan-kasuan jar daitezkeen errekurtsoak ere zehazten dira.

Bigarren kapituluan, jokabide murriztaileengatik egongo den zehatzeko prozedura arautzen da; instrukzio-aldi bat egongo da, Ikerketa Zuzendaritzak aurrera eramango duena, eta instrukzio horren bidez, gertatutakoa argitzeko eman beharreko pauso guztiak emango dira, eta salatutakoek kontra egiteko aukera izatea eta beren buruak defendatzeko duten eskubidea bermatuko dira. Kasuan kasuko txosten edo proposamena aurkeztutakoan, Kontseiluak ebatzi egingo du, instrukzioa osatzeko egoki iritzitako jarduera osagarriak egin ostean, indarrean dagoen araudiak zehazten dituen kontsultak egin ondoren eta, beharrezkoa iruditUz gero, bista izan eta gero. Europar Batasuneko araudiarekin bat, legeak aukera eskaintzen du ebazpen horretan egiturazko baldintzak jartzeko.

Arlo horretan, aipatu beharrekoa da itundutako amaieraren erregimena malgutu egin dela, eta ondorengoetan zentratzen dela: ustezko arau-hausleak proposatu beharreko konpromisoetan, Ikerketa Zuzendaritzarekiko negoziazioan, eta Kontseiluari aurkeztu beharreko ebazpen-proposamenean; ebazpen-proposamena beti proposamen-txostena baino lehen aurkeztu beharko da, eta espedientean interesdunak diren gainontzekoen adostasunik gabe ere onartzeko aukera egongo da.

Kautelazko neurriei dagokienez, legeak malgutu eta azkartu egin du horiei buruzko akordioa hartzeko sistema, eta prozeduraren edozein unetan hartzeko modua egongo da, eta ez dute gehieneko iraupen-eperik izango.

Hirugarren kapitulua kontzentrazioak kontrolatzeko prozedurari buruzkoa da. Arlo honetan, legeak prozeduraren bi aldiak mantentzen jarraitzen du, eta baita sistemak Espainian duen ezaugarrietako bat, alegia, epeak laburrak izatea, baina prozeduraren instrukzioa egin eta ebazpena emateko eskumena Lehiaren Batzorde Nazionalaren eskuetan utzi du. Lehen faseak gehienez ere hilabete iraungo du, eta lehiaren inguruko arazorik sortzen ez duten operazioak aztertu eta onartuko dira. Bigarren fasean, operazioa zehatzago aztertuko da, hirugarren interesdunek ere parte hartzen dutela, Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseiluak azken ebazpena har dezan.

Lehiaren Batzorde Nazionalaren aurreko prozeduran, baldintzak jartzeaz gainera, beste neurri batzuk hartzea ere aurreikusten da, hala nola jakinarazleek konpromisoak aurkeztu beharra izatea kontzentrazioaren ondorioz lehian sor litezkeen arazoak konpontzeko, edo gaiaren inguruan hirugarrenei kontsultak egiteko aukera izatea.

Kontseiluak hartutako ebazpenak debekatu egiten badu edo konpromiso nahiz baldintza batzuk bete beharra eskatzen badu, Ekonomia eta Ogasun ministroak hamabost eguneko epea izango du kontzentrazioa Ministroen Kontseiluan aurkeztu eta kontseilu horrek esku hartzeko. Ministroen Kontseiluaren azken erabakia behar bezala arrazoitutakoa izango da, eta kontzentrazioa baimentzeko aukera izango du, baldintzak jarrita edo jarri gabe. Erabaki hori hartzeko gehienez ere hilabeteko epea egongo da espedientea jaso zutenetik, eta Lehiaren Batzorde Nazionalari txostena eskatzeko aukera izango dute.

Azkenik, bosgarren tituluan, zehapen-erregimena jasotzen da. Esparru honetan legeak aurrerapauso handia eman du segurtasun juridikoari dagokionez, legean bertan aurreikusten diren arau-hausteak mailakatu egin dituelako, eta bakoitzari dagokion gehieneko zehapena ere zehaztu duelako. Zehapen horiek arau-hausleek guztira duten salmenta-bolumenaren ehuneko jakin baten araberakoak izango dira. Horrekin batera, kasu bakoitzean isuna jartzeko irizpideak zeintzuk izango diren ere zehaztu da, gaur egun Europan diren joeren ildo beretik. Gainera, legea betearaztearen ondorioz jarriko diren zehapen guztien berri emango zaio gizarteari, eta horrek hartuko diren ebazpenek arau-hausleei atzera eragiteko duten indarra areagotuko du.

Errukitasun-prozedura bat ere gehitu da, Europar Batasunean indarrean dagoenaren antzekoa, eta horren arabera, enpresa batzuek ez dute isuna ordaindu beharrik izango, baldin eta kartel bateko kide izanik ere, kartel hori badela salatzen badute eta ikertzeko froga garrantzitsuak eskaintzen baldin badituzte, beti ere araua hausten duen jarduera bertan behera utziz gero eta berak izan ez badira debekatutako akordioan gainerako kideei sartzeko proposamena egin dietenak. Era berean, isunaren zenbatekoa murriztu egingo zaio zenbait enpresari, lankidetza eskaini baina isun osotik salbuesteko aukera ez baldin badago.

Legeak, bukatzeko, hamaika xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, indargabetzeko xedapen bat eta hiru azken xedapen ditu. Zehazki esanda, xedapen gehigarrien bidez aldaketak sartu dira arau jurisdikzional eta prozesal batzuetan, hain zuzen ere merkataritzaren arloko organoek lehiari buruzko

arauen aplikazio pribatua behar bezala bideratzeko, hori baita lege honen ekarpen garrantzitsuenetako bat.

Hori horrela izanik, lehen xedapen gehigarrian, Aginte Judizialaren Lege Organikoa betez, ezartzen da merkataritza arloko epaileek izango dutela eskumena lehiaren arloan, hain zuzen ere Lehiaren Defentsarako Legearen 1. eta 2. artikuluetan esaten dena betez, eta hori guztia Europar Batasuneko araudian Europar Batasunaren Hitzarmenaren 81. eta 82. artikuluez aurreikusten denaz bat. Bestalde, bigarren xedapen gehigarriak Prozedura Zibilaren Legea aldatu du, berariaz aurreikusita egon dadin lehiaren arloko estatuko eta Europar Batasuneko organoek "amicus curiae" gisa parte hartu ahal izatea, lehiaren arloko araudia ezartzeko prozeduretan. Horrekin batera, informazioa helarazteko hainbat bide zehaztu dira, administrazio-organoek organo judizialekin lankidetza egokian aritzeko bidea izan dezaten. Bukatzeko, zenbait egoeratan prozedura judizialak eteteko aukera aurreikusi da, hain justu ere eskumena duen epaileak ikusten baldin badu beharrezkoa dela administrazioaren iritziaren berri izatea behin betiko epaia emateko, estatuko eta Europar Batasuneko lehiaren arloko arauak kontuan izanda.

Azkenik, zazpigarren xedapen gehigarriak uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, aldatu du, estatuko eta autonomia-erkidegoetako organoek hartutako erabakien kontrako errekurtsoen erregimena zein den argitzeko, eta lege hau betez ikuskapen bat egin nahi eta horren aurkako jarrera badago, baimen judiziala lortzeko prozedura zein den argitzeko.

## I. TITULUA

## Lehia defendatzea

### 1. KAPITULUA

### Debekatutako jokabideak

#### 1. artikulua. Kolusiozko jokabideak.

1. Debekatuta dago akordio oro, erabaki edo gomendio kolektibo oro, hitzartutako jardunbide oro edo jakinaren gaineko jardunbide paralelo oro, horien helburua ondorengoa bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea; bereziki ondorengoak egongo dira debekatuta:

a) Prezioak edo beste merkataritza- edo zerbitzu-baldintza batzuk zuzenean edo zeharka finkatzea.

b) Ekoizpena, banaketa, garapen teknikoa edo inbertsioak mugatu edo kontrolatzea.

c) Merkatua edo hornigaien iturriak banatzea.

d) Merkataritza- edo zerbitzu-harremanetan, baldintza ezberdinak ezartzea baliokideak diren prestazioentzat, eta horrek lehiatzaile batzuei desabantailak eragitea beste batzuen aurrean.

e) Kontratuak hitzartu ahal izateko beste prestazio osagarri batzuk eskaintzeko baldintza jartzea, baldin eta prestazio horien ezaugarriengatik edo merkataritzako ohiturengatik hori eskatzeak ez badu zer ikusirik kontratuen helburuarekin.

2. Erabat deusezak izango dira 1. apartatuan xedatutakoaren arabera debekatuta dauden akordio, erabaki eta gomendioak izanik, lege honetako salbuespenen artean ageri ez direnak.

3. 1. apartatuko debekua ez dute bete beharko akordio, erabaki, gomendio eta jardunbide batzuek, baldin eta horien bidez ondasun eta zerbitzuen produkzio, merkaturatze eta banaketa hobetzen laguntzen bada, edo aurrerabide tekniko edo ekonomikoari laguntzen badiote; horretarako ez da aldez aurretiko erabakirik behar izango, ondorengo kasuetan:

a) Kontsumitzaile edo erabiltzaileei lortzen diren onuretan bidezko modu batean parte hartzen uztea.

b) Interesa duten enpresei helburuak lortzeko ezinbestekoak ez diren mugak ez jartzea, eta

c) Aurreikusten diren produktu edo zerbitzuen zati handi baten inguruan lehia desagerrarazten ez uztea, parte hartzen duten enpresei.

4. 1. apartatuko debekua ez dute bete beharko akordio, erabaki edo gomendio orokor jakin batzuek, edo hitzartutako jardunbide nahiz nahita paraleloak diren jardunbide batzuek, baldin eta Europar Batasuneko erregelamenduetan zehaztutako xedapen jakin batzuk betetzen badituzte, hain zuzen ere Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81. artikuluko 3. apartatua akordio, enpresa-elkarteen inguruko erabaki edo hitzartutako jardunbide jakin batzuei ezartzeari buruzkoak. Eta hori guztia baita jokabide horiek Europar Batasuneko estatu kideen arteko merkataritzari eragiten ez diotenean ere.

5. Era berean, Gobernuak, errege-dekretu bidez, artikulu honetako 3. apartatua jokabide jakin batzuei ezartzea erabakitzeko aukera izango du, aldez aurretik Lehia Defendatzeko Kontseiluaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostena jaso ostean.

**2. artikulua. Nagusitasunezko egoeraren abusua.**

1. Debekaturik dago enpresa batek edo batzuek duten nagusitasunezko egoeraz abusatzea merkatu nazional osoan edo horren zati batean.

2. Abusua, zehazki, ondorengoak izango dira:

a) Zuzenean edo zeharka, bidezkoak ez diren Prezioak edo beste merkataritza edo zerbitzu-baldintza batzuk inposatzea.

b) Ekoizpena, banaketa edo garapen teknikoa mugatzea, enpresei edo kontsumitzaileei zuritzerik ez dagoen kaltea eraginda.

c) Produktuak erosteko edo zerbitzuak eskaintzeko eskariari ezetz esatea, horretarako arrazoirik eman gabe.

d) Merkataritza- edo zerbitzu-harremanetan, baldintza ezberdinak ezartzea baliokideak diren prestazioentzat, eta horrek lehiatzaile batzuei desabantailak eragitea beste batzuen aurrean.

e) Kontratuak hitzartu ahal izateko beste prestazio osagarri batzuk eskaintzeko baldintza jartzea, baldin eta prestazio horien ezaugarriengatik edo merkataritzako ohiturengatik hori eskatzeak ez badu zer ikusirik kontratuen helburuarekin.

3. Enpresa batek edo batzuek merkatuan duten nagusitasunezko egoera legezko xedapen baten bidez ezarri den kasuetan ere aplikatuko da artikulu honetan aurreikusten den debekua.

**3. artikulua. Lehia askea egintza desleialen bidez faltsutzea.**

Lehiaren Batzorde Nazionala edo autonomia-erkidegoetan eskumena duten organoak izango dira, debekatutako jokabidetzat lege honetan ezarritako mugen barruan, lehia desleialeko egintzak aztertuko dituztenak, hain zuzen ere lehia askea faltsutzeagatik interes publikoari kalte egiten diotenak.

**4. artikulua. Legeak salbuetsitako jokabideak.**

1. Lehiaren defentsaren arloko xedapen komunitarioen behin-behineko aplikazioaren kalterik gabe, kapitulu honetako debekuak ez zaizkio aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokabideei.

2. Kapitulu honetan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondoriozkoak direnei, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondoriozkoak direnei, eta lege-babesik gabe burutzen badira.

**5. artikulua. Garrantzi txikiko jokabideak.**

Lege honetako 1. artikulutik 3.era artekoan aipatzen diren debekuak ez zaizkie ezarriko garrantzi txikia izateagatik lehiari modu nabarmenean eragiteko gauza ez diren jokabideei. Erregelamendu bidez zehaztuko da zein diren garrantzi txikiko jokabideak zehazteko irizpideak, eta beste batzuen artean, merkatu-kuota zein den hartuko da kontuan.

**6. artikulua. Aplikaezintasunaren adierazpenak.**

Interes publikoak hala eskatzen duenean, Lehiaren Batzorde Nazionalak, ofizioz hartutako erabakiaren bidez, eta aldez aurretik Lehia Defendatzeko Kontseiluaren txostena izanda, 1. artikulua akordio, erabaki edo jardunbide jakin bati ez zaiola aplikatuko adierazteko aukera izango du, bai 1. apartatuan eskatzen diren baldintzak betetzen ez direlako, bai artikulu bereko 3. apartatuan aipatzen diren baldintzak betetzen direlako. Aplikaezintasunaren adierazpena lege honen 2. artikuluan esaten direnekiko ere egin ahal izango da.

## II. KAPITULUA

## Kontzentrazio ekonomikoak

**7. artikulua. Kontzentrazio ekonomikoaren definizioa.**

1. Lege honetan aipatzen direnei dagokienez, kontzentrazio ekonomiko bat izan dela ulertuko da enpresa baten edo hainbat enpresaren kontrol osoa edo kontrolaren zati bat aldatu egiten denean modu egonkorrean, ondoren zehazten den arrazoiren batengatik:

a) Lehen independenteak ziren bi enpresa edo gehiagok bat egin dutelako, edo

b) Enpresa batek beste enpresa baten edo batzuen osotasunaren edo zati baten kontrola eskuratu duelako.

c) Partaidetza bidezko enpresa bat sortzen denean, eta orokorrean hitz eginda, enpresa batekiko edo batzuekiko kontrola eskuratzen denean, baldin eta horiek etengabe erakunde ekonomiko autonomo baten eginkizunak betetzen badituzte.

2. Aurreko puntuari dagokionez, kontrola eskuratu dela ulertuko da, kontratu, eskubide edo beste edozein bide erabilita, izatezko eta eskubidezko egoera kontuan izanda, enpresa batean eragin erabakigarria izateko aukera lortu bada, bereziki ondorengoen bidez:

a) Enpresa baten aktibo guztien edo aktiboen zati baten jabetza-eskubidea edo erabiltzeko eskubidea lortzea,

b) Enpresako organoen eraketa, eztabaida edo erabakietan modu erabakigarrian eragiteko aukera eskaintzen duten kontratu, eskubide edo beste edozein bide lortzea.

Kasu guztietan, kontrola eskuratu dela ulertuko da Balore-Merkatuei buruzkoa den uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 4. artikuluan aurreikusitako egoeretakoren bat gertatzen denean.

3. Ez dira kontzentraziotzat joko:

a) Talde baten baitakoak diren enpresen artean balore edo aktiboak birbanatzea.

b) Enpresa batean erositako partizipazioak aldi baterako edukitzea, baina kreditu-erakunde baten bidez edo beste finantza-erakunde baten bidez nahiz aseguru-etxe baten bidez berriro saltzeko (aseguru-etxe horren jarduera arrunten artean norbere kontura edo hirugarrenen kontura tituluen transakzioa egitea eta negoziatzea sartzen denean), baina baldintza hauetan: partizipazio horiei dagokien boto-eskubidea dena delako enpresaren lehia-arloko jokaera zehazteko asmoarekin erabiltzen ez bada, edo enpresa osoa edo enpresaren zati bat edo aktibo guztiak edo zati bat saldu ahal izatea prestatzeko baino ez badira erabiltzen partizipazio horiek, eta salmenta hori partizipazioak erosi zirenetik urtebeteko epean gertatzen bada. Salbuespenetan, Lehiaren Batzorde Nazionalak epe hori luzatzeko aukera izango du, aldez aurretik hala egiteko eskatzen baldin bazaio, baldin eta erakunde edo sozietate horiek zuritzen baldin badute arrazoizko modu batean ezin izan dutela zehaztutako epearen barruan egin diru-bihurtzea.

c) Parte hartze finantzarioko sozietateek 1978ko uztailaren 25eko 78/660/CEE laugarren zuzentarauaren 5. artikuluko 3. apartatuan zehaztutako bidetik egindako eragiketak, hau da, aldi batez beste enpresa batzuen partizipazioak erosten badituzte, baina partizipazioei dagokien boto-eskubidea inbertsio horien balio osoa mantentzeko erabiltzen bada, eta ez enpresa horien lehia-jokaera baldintzatzeko.

d) Pertsona batek kontrola eskuratzea, baina aginte publiko batek emandako agintearen bidez, konkurtso arloko araudiaz bat.

**8. artikulua. Aplikazio-eremua.**

1. Lege honetan aipatzen den kontrol-prozedura ondoren zehazten diren bi egoeretakoren bat gertatzen denean aplikatuko zaie kontzentrazioei:

a) Kontzentrazioaren ondorioz dena delako produktu edo zerbitzuak estatuan edo estatuaren barruko merkatu geografiko zehatz baten barruan duen merkatu adierazgarriaren % 30eko edo goragoko kuota eskuratzea.

Kontrol-prozeduratik kanpo geratuko dira ondorengo ezaugarriak dituzten kontzentrazio ekonomikoak: a) idatz-zati honetan ezartzen dena beteta ere, erositako sozietatearen edo aktiboen negozio-bolumen orokorra azken ekitaldi kontablean 10 milioi eurotik gorakoa ez izatea Espainian, baina baldin eta taldean parte hartzen dutenek bakoitzak bere aldetik edo elkarrekin % 50eko kuota edo handiagoa ez badute kasuan kasuko merkatuetan, dela estatuan edo estatuaren barruan zehazturiko merkatu geografiko jakin baten barruan.

b) Parte hartzen dutenen negozio-bolumen orokorra azken ekitaldi kontablean 240 milioi eurotik gorakoa izatea Espainian, baina baldin eta taldean parte hartzen dutenetako bik behintzat bakoitzak bere aldetik 60 milioi euro baino gehiagoko negozio-bolumena baldin badute Espainian.

2. Lege honetan aurreikusten diren obligazioek ez diete eragingo dimentsio komunitarioa duten kontzentrazioei, kontzentrazio horiek Kontseiluaren urtarrilaren 20ko 139/2004 Erregelamenduan (CE) jasotako definizioaren arabera kontuan izanda (enpresen arteko kontzentrazioak kontrolatzeari buruzko erregelamendua da), non eta Europar Batzordeak dena delako kontzentrazioari buruzko erabakia Espainiara igortzea erabaki ez duen, gorago aipatutako erregelamendu horretan esaten denaz bat.

**9. artikulua. Jakinarazteko betebeharra eta gauzatzea bertan behera uztea.**

1. Aurreko artikuluaren ezarpen-eremuaren barruan sartzen diren kontzentrazio ekonomikoak Lehiaren Batzorde Nazionalari jakinarazi beharko zaizkio, gauzatu baino lehen.

2. Kontzentrazio ekonomikoa ezin izango da gauzatu administrazioak berariaz edo isilbidez horretarako baimena eman eta baimen hori betearaztekoa ez den artean, hain zuzen ere 38. artikuluan zehazten den moduan, salbu eta suspentsioa bertan behera uzten den kasuetan.

3. Aurreko apartatuetan esandakoak ez du galaraziko akzioak erosteko eskaintza publikoa egiteko modua izatea, akzio horiek Baloreen Merkatuko Batzorde Nazionalak baimendutako balore-burtsa batean onartu badituzte negoziatzeko, eroste hori kontrolpean dagoen kontzentrazio ekonomikoa baldin bada, lege honetan aurreikusitakoaren bat; baina baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Kontzentrazioaren berri Lehiaren Batzorde Nazionalari eman beharko zaio, Merkatuko Baloreen Batzorde Nazionalari eskaintzarentzako baimena eskatzen zaionetik bost egun igaro baino lehen, lehenago jakinarazi ez bada; eta

b) Erosleak ez du aipagai diren balore horien ondoriozko boto-eskubidea gauzatuko, eta eskubide hori erabiltzekotan, egin duen inbertsioaren balore osoa babesteko baino ez du erabiliko, Lehiaren Batzorde Nazionalak emandako dispentsa bati esker.

4. Jakinarazteko betebeharra izango dute:

a) Bat egite batean, partizipazio bidezko enpresa baten sorreran edo enpresa baten nahiz batzuen osotasunaren edo zati baten kontrola erosten parte hartzen duten aldeek, denek.

b) Banan-banan, enpresa baten edo batzuen osotasuna edo zati bat bere kabuz kontrolatzeko eskubidea erosten duen aldeak.

5. Lege honetan aurreikusitakoaren arabera kontrolatu beharrekoa den kontzentrazio baten berri ez baldin bazaio Lehiaren Batzorde Nazionalari jakinarazten, Batzordeak, bere kabuz, jakinarazi beharra duten aldeei hala egiteko eskatuko die, eta horretarako gehienez ere hogei eguneko epea emango die, hori egiteko errekerimendua jasotzen dutenetik zenbatzen hasita.

Ez dute 38. artikuluan aipatzen den isiltasun positiboaren onuraz baliatzeko aukerarik izango, kontzentrazioaren berri Lehiaren Batzorde Nazionalak horretarako errekerimendua egin eta gero jakinarazi duten kontzentrazioek.

Jakinarazteko epea igaro eta jakinarazpenik egin ez bada, Ikerketa Zuzendaritzak, bere kabuz, kontzentrazioak kontrolatzeko espedientea abiarazteko aukera izango du, eta 61. artikulutik 70.era artekoetan aurreikusten diren zehapen eta hertsatzeko isunak jartzeko modua egongo da.

6. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak artikulu honen 2. apartatuan aipatzen den suspentsioa, kontzentrazioa gauzatzeko suspentsioa, indarrik gabe uzteko aukera izango du, Ikerketa Zuzendaritzak hala proposatzen badu, arrazoituriko eskaria egin ostean.

Ebazpena erabakitzeko, beste batzuen artean, neurtu egin beharko da kontzentrazioan parte hartzen duten enpresei zer nolako kaltea eragingo dien kontzentrazioa gauzatzea bertan behera uzteak, eta zer nolako kaltea eragingo liokeen kontzentrazioa gauzatzeak lehia askeari.

Kontzentrazioa gauzatzea bertan behera utzi duen erabakia indarrik gabe uzteko, baldintza eta betebehar batzuk eskatzea egongo da, azkenean hartuko den erabakia eraginkorra izango dela bermatzeko.

**10. artikulua. Baloratzeko irizpide garrantzitsuak.**

1. Lehiaren Batzorde Nazionalak kontzentrazio ekonomikoak baloratzeko orduan, kontuan izango du merkatu nazional osoan edo merkatuaren zati batean lehia bideragarria egoteari zer nolako oztopoak jartzen zaizkion.

Zehazki esanda, Lehiaren Batzorde Nazionalak erabakia hartzerakoan, beste batzuen artean ondorengoak izango ditu kontuan:

a) merkatu adierazgarri guztiek zer nolako egitura duten,

b) egoerak eragiten dien enpresek zein leku duten merkatuetan, zer nolako indar ekonomiko eta finantzarioa duten,

c) Estatuaren barruan edo kanpoan dauden beste enpresa batzuek benetan nolako lehia egiten dieten edo egin diezaieketen,

d) hornitzaileek eta bezeroek hautatzeko zer nolako aukerak dituzten, eta hornigaietara edo merkatuetara iristeko duten modua,

e) merkatu horietara iristeko oztoporik dagoen edo ez,

f) dena delako produktu edo zerbitzuen eskaintza eta eskariak zer nolako bilakaera izan duen,

g) eskaintzak edo eskaerak negoziatzeko zenbaterainoko aukerak dituzten, eta gaiak eragiten dien enpresek merkatuan duten posizioa konpentsatzeko zer nolako modua duten,

h) kontzentratzeko eragiketatik zer nolako efizientzia ekonomikoak lortu diren, eta bereziki, kontzentrazioa dela eta zer nolako ekarpenak egin dakizkiekeen ekoizpen- eta merkaturatze-sistemei eta enpresen arteko lehiari, eta eraginkortasun horiek zein neurritan iristen diren tarteko eta amaierako kontsumitzaileengana; azken hori, zehazki, eskaintza zabalago edo hobearen bidez, prezio merkeagoekin.

2. Kontzentrazioen kontrolpean dagoen partizipazioaren bidezko enpresa bat sortu eta horren helburua independente izaten jarraituko duten enpresen lehiazko jarrera kontrolatzea baldin bada, koordinazio hori baloratzeko orduan, lege honetako 1. eta 2. artikuluetan ezarritakoa hartu beharko da kontuan.

3. Hala behar duten kasuetan, kontzentrazio ekonomiko baten balorazioa egiteko orduan, lehiarekiko muga osagarri batzuk egongo direla ulertu beharko da, operazioarekin zuzen-zuzenean loturik dauden mugak eta eragiketa aurrera eramateko beharrezkoak direnak.

4. Ministroen Kontseiluak, lege honen 60. artikuluan aurreikusitakoei dagokienez, kontzentrazio ekonomikoen balorazioa egiteko orduan, interes orokorreko beste interes batzuk ere izan ahal izango ditu kontuan, hau da, lehia defendatzearekin zerikusirik ez duten beste interes batzuk.

Zehazki esanda, ondorengoak sartuko dira interes horien barruan:

a) estatuaren defentsa eta segurtasuna,

b) herritarren segurtasuna edo osasuna babestea,

c) estatuaren lurraldearen barruan ondasunek eta zerbitzuek libreki zirkulatzeko aukera izatea,

d) ingurumena babestea,

e) ikerketa eta garapen teknologikoa sustatzea,

f) erregulazio sektorialaren helburuak behar bezala mantenduko direla bermatzea.

## III. KAPITULUA

## **Laguntza publikoak**

### **11. artikulua. Laguntza publikoak.**

1. Lehiaren Batzorde Nazionalak, bere kabuz edo administrazio publikoek eskatuta, laguntza publikoak emateko erabiltzen diren irizpideak aztertzeko aukera izango du, merkatuan lehia bideragarria mantentzeari begira zer nolako ondorioak dituzten jakiteko, eta helburu hau izango du kontu horiek aztertzean:

a) Txostenak idaztea laguntzen erregimenen inguruan eta banan-banako laguntzen inguruan.

b) Administrazio publikoei proposamenak bidaltzea, lehia mantentzeari begira.

2. Horiek hala izanik ere, Lehiaren Batzorde Nazionalak urtero txostena egin beharko du Espainian emandako laguntza publikoei buruz, publikoa izango da, eta lege honen 27.3.b) artikuluan aurreikusitako ezaugarriak eduki beharko ditu.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak urtero txostena igorriko du Gorte Nagusietara, horien Aurrekontu Bulegoaren bidez, Espainian emandako laguntza publikoei buruz. Bulegoak diputatuen, senatarien eta parlamentuko batzordeen esku jarriko du informazio hori.

3. Artikulu honen 1. eta 2. apartatuetan aurreikusten diren txostenak eta proposamenak egiteko, Europar Batzordeari jakinarazteko erantzukizuna duen organoak ondorengoak jakinarazi beharko dizkio Lehiaren Batzorde Nazionalari:

a) Europako Erkidegoaren Tratatuaren 87 eta 88. artikuluen ezarpen-eremuaren baitan sartzen diren laguntza publikoen proiektuen berri, Europar Batzordeari jakinarazi behar zaion unean.

b) Salbuespenei buruzko Batasuneko erregelamenduen babespean emandako laguntza publikoen berri, eta baita 1999ko martxoaren 22ko 659/1999 CE Kontseiluaren erregelamenduaren 21. artikuluan aipatzen diren urteroko txostenen berri, Europako Batzordeari jakinarazi behar zaion unean.

Lehiaren Batzorde Nazionalak informazio eta komunikaziorako beharrezkoak diren bideak jarriko ditu, eskuratzen den informazioa autonomia-erkidegoetan lehia defendatu behar duten organoen eskuetara ere irits dadin.

4. Aurrekoa hala izanik ere, Lehiaren Batzorde Nazionalak administrazio publikoen proiektuei eta emandako dirulaguntzei buruzko edozein informazio eskatzeko aukera izango du, eta zehazki, aurreko puntuko a) eta b) apartatuetan aurreikusitakoak ez bezalako edonolako dirulaguntzak ematea aurreikusten duten xedapenei buruzko informazioa.

5. Autonomia-erkidegoetan lehia defendatzeaz arduratzen diren organoek ere autonomia-erkidegoko edo tokiko administrazioek beren eremuaren barruan emandako dirulaguntza publikoei buruzko txostenak idazteko aukera izango dute, artikulu honen 1. apartatuan aurreikusitakoetarako. Txosten horiek Lehiaren Batzorde Nazionalera bidali beharko dituzte, urteroko txostenarekin batera jaso ditzaten. Aurrekoa hala izanik ere, Lehiaren Batzorde Nazionalak, esparru horretan, dagozkion eskumenak izango ditu.

6. Artikulu honetan ezarritakoa hala izanik ere, kontuan izan behar dira Europako Erkidegoaren Tratatuaren 87.etik 89.era arteko artikuluak, eta Kontseiluaren 1999ko martxoaren 22ko 659/1999 CE erregelamendua; horiekin batera, baita Europako Batzordearen eskumenak eta Batasuneko eta estatuko organo jurisdikzionalen eskumenak ere, laguntza publikoak kontrolatzeari dagokionez.

## II. TITULUA

## **Lege hau ezartzeko eskema instituzionala**

### I. KAPITULUA

### **Lege hau ezartzeko eskumena duten organoak**

**12. artikulua. Lehiaren Batzorde Nazionala.**

(Indargabetua)

**13. artikulua. Autonomia-erkidegoetako organo eskudunak.**

1. Autonomia-erkidegoetan lege hau ezartzeko eskumena duten organoek beren lurraldearen baitan lege honen 1., 2. eta 3. artikuluetan aurreikusitako jokabideak aztertzea helburu duten prozeduren betearazpen-eskumenak gauzatuko dituzte, beti ere lege horretan bertan eta Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legean aurreikusitakoaz bat.

2. Lehiaren Batzorde Nazionalak dituen eskumenak dena delakoak izanik ere, autonomia-erkidegoetan eskumena duten organoek legitimitatea izango dute eskumena duten jurisdikzioan administrazio-zuzenbideari loturik dauden administrazio publikoen ekintzak edo legea baino beheragoko xedapen orokorrak aurkaratzeko, horien bidez merkatuko lehia bideragarriari oztopoak jartzen baldin bazaizkio.

**14. artikulua.- Ministroen Kontseilua.**

Ministroen Kontseiluak kontzentrazio ekonomikoak kontrolatzeko prozeduretan esku hartzeko eskumena izango du, lege honen 60. artikuluan aurreikusitakoaz bat.

II. KAPITULUA

**Lankidetza eta kooperazioko prozedurak**

**15. artikulua. Lehiaren Batzorde Nazionala autonomia-erkidegoetako organo eskudunekin koordinatzea.**

1. Lehiaren Batzorde Nazionala autonomia-erkidegoetako organo eskudunekin koordinatzeko orduan, Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legean xedatutakoa bete beharko da.

2. Organo jurisdikzionalekiko lankidetza eta organo arautzaileekiko koordinazioa errazteko, Lehiaren Batzorde Nazionalak eta autonomia-erkidegoetan lehia defendatzeko eskumena duten organoek elkarri jardueren, eskaeren eta txostenen berri emateko bideak zehaztuko dituzte (lege honen 16 eta 17. artikuluetan aurreikusitakoak), hain zuzen ere Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legea aurreikusitakoaz bat hasiera eman zaien prozeduren kasuan.

**16. artikulua. Organo jurisdikzionalekiko lankidetza**

1. Lehiaren Batzorde Nazionalak, bere kabuz, informazioa eman edo oharrak aurkeztu ahal izango dizkie organo jurisdikzionalei, Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluak ezartzeari buruz, edo lege honen 1. eta 2. artikuluei buruz, Prozedura Zibileko Legean aurreikusitako moduan.

2. Autonomia-erkidegoetako organo eskudunek, beren eskumenen esparruan, eta beren ekimenez, lege honen 1. eta 2. artikuluak betetzeari buruzko informazioa edo oharrak bidali ahal izango dizkiete organo jurisdikzionalei, Prozedura Zibileko Legean aurreikusitako moduan.

3. Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluak edo Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. eta 2. artikuluak ezartzeari buruz izandako demandak izapidetu daitezela onartzen duten autoak eta epaiak Lehiaren Batzorde Nazionalari jakinarazi beharko zaizkio, Prozedura Zibileko Legean aurreikusitako moduan. Lehiaren Batzorde Nazionalak informazioa bideratzeko beharrezko neurriak hartuko ditu, epai horiek autonomia-erkidegoetako organoei jakinarazteko.

4. Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluak ezartzeari buruz ematen diren epaien testuaren kopia bat igorri beharko du Lehiaren Batzorde Nazionalak Europako Batasunera.

**17. artikulua. Arautzaile sektorialekiko koordinazioa.**

(Indargabetua)

**18. artikulua. Lehiaren Batzorde Nazionalaren eta beste estatu kide batzuetako lehiaren agintaritzen eta Europako Batzordearen arteko elkarlana.**

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, Europako Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. eta 102. artikuluak aplikatzeko eta beste estatu kide batzuetako lehiaren agintariekin eta Europako Batzordearekin lankidetzan aritzeko ahalmena erabiliz, honako hau egin ahal izango du:

a) Europako Batzordearekin eta beste estatu kide batzuetako lehiaren agintaritzekin trukatzea, eta frogabide gisa erabiltzea, egitatezko edo zuzenbidezko elementu guztiak, informazio konfidentziala barne, Europako araudian aurreikusitako moduan. Bereziki, errukitasun-adierazpenei dagokienez, adierazpen horiek eskatzailearen baimenarekin trukatu ahal izango dira, edo eskatzaileak bere eskaera aipatutako lehiaren agintaritzetan aurkeztu duenean, baldin eta errukitasun-adierazpen igortzen den egunean, errukitasun-eskatzaileak ezin badu atzera bota errukitasun-adierazpena jasotzen duen lehiaren agintaritzari emandako informazioa.

b) Europako Batzordeak edo beste estatu kide batzuetako lehiaren agintaritza nazionalek eskatuta, lege honen 39., 39bis eta 40. artikuluetan aurreikusitako ahalmenak gauzatzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 16ko 1/2003 (EE) Erregelamenduaren 20. artikulutik 22. artikulura bitartean aurreikusitakoarekin bat etorriz (Itunaren 81. eta 82. artikuluetan lehiari buruz aurreikusitako arauak ezartzeari buruzkoa), estatu kideetako eskumeneko agintariei bitartekoak emateko lehiari buruzko arauak eraginkortasun handiagoz aplikatzeko eta barne-merkatuaren funtzionamendu egokia bermatzeko.

c) Baimena ematea, salbuespen gisa, beste estatu kide batzuetako lehiaren agintari nazionaletako langileei, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko langileek gainbegiratuta, 39bis eta 40. artikuluetan aurreikusitako ahalmenak gauzatzen laguntzeko, 2018ko abenduaren 11ko 2019/1 (EB) Zuzentarauaren 24.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

d) Jakinaraztea, beste estatu kide batzuetako lehiaren agintaritza nazionalen izenean eta ordezkari gisa, Europako Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. eta 102. artikuluen aplikazioari buruzko gertakariak zehazteko agiriak, debekatutako jokabideak daudela frogatzen duten edo isunak edo hertsatzeko isunak jartzen dituzten ebazpenak, baita beste edozein erabaki, egintza edo agiri ere, abenduaren 11ko 2019/1 (EB) Zuzentarauaren 25. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

e) Isunak edo hertsapen-isunak ezartzen dituzten ebazpen irmoen betearazpena izapidetzea, Europako Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. eta 102. artikuluak aplikatuz, beste estatu kide batzuetako lehiaren agintarien izenean eta ordezkari gisa, zehatutako enpresak edo enpresa-elkarteak egoitza ez badu bertan edo behar adinako baliabiderik ez badu isuna ordaintzeko, 2018ko abenduaren 11ko 2019/1 (EB) Zuzentarauaren 26. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

f) Europako Batasuneko lehiaren agintaritza nazional bati ikuskapena, elkarrizketa edo informazio-errekerimendua egiteko eskatzea, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren izenean eta haren kontura, eta, hala badagokio, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko langileak izendatzea, ikuskapen edo elkarrizketa horretan bertan egoteko eta laguntzeko, 2018ko abenduaren 16ko 201/2002 (EE) Erregelamenduaren 22. artikuluan eta 2018ko abenduaren 11ko 2019/1 (EB) Zuzentarauaren 24.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

g) 2018ko abenduaren 11ko 2019/1 (EB) Zuzentarauaren 25. artikulutik 28. artikulura bitartekoak aplikatzeko agintaritza errekeritzaile gisa jardutea.

h) Agintari eskudunen arteko beharrezko harremanak bermatzea, 2018ko abenduaren 11ko 2019/1 (EB) Zuzentarauaren 23. artikuluko 4. apartatuan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Jurisdikzio-organoekiko komunikazioak Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Lehiaren Zuzendaritzak atal honi jarraiki egiten dituen jakinarazpenak eta jarduerak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren beraren egintzei aplikatu beharreko Espainiako legeriaren arabera arautuko dira.

2. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, beste estatu kide batzuetan edo Europako Batzordearen aurrean jakinarazi diren edo izan daitezkeen eragiketetan kontzentrazioak kontrolatzeko funtzioak betez, eta aldeen berariazko baimenarekin, Europako Batzordearekin eta beste estatu kide batzuetako lehiaren agintaritza nazionalekin trukatu ahal izango du, eta frogabide gisa erabili ahal izango ditu egitatezko edo zuzenbideko elementu guztiak, informazio konfidentziala barne.

3. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Lehiaren Zuzendaritzak ikerketak egin ahal izango ditu ondoko arauaren 5., 6. eta 7. artikuluak ez betetzeagatik lurralde nazionalean: sektore digitaleko merkatu eztabaidagarriei eta ekitatezkoei buruzko eta 2019/1937 eta 2020/1828 (EB) Zuzentarauak aldatzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022ko irailaren 14ko 2022/1925 (EB) Erregelamendua (Merkatu Digitalen Erregelamendua). Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Lehiaren Zuzendaritzak hirugarrenengandik jasotako informazioa ere erabili ahalko du, Merkatu Digitalen Erregelamenduaren 27. artikuluaren arabera.

Ikerketako lehen neurri formala hartu aurretik, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Lehiaren Zuzendaritzak idatziz emango dio berri Europako Batzordeari.

Merkatu Digitalen Erregelamenduaren 20. artikuluaren arabera Europako Batzordeak prozedura bati ekiten badio, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Lehiaren Zuzendaritzak ezingo du ikerketa hori egin Erregelamendu hori aplikatzeko edo abian dagoen ikerketa amaitzeko. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko Lehiaren Zuzendaritzak bere ikerketaren ondorioen Europako Batzordeari.

Ikerketa lege honen 49.2 artikuluan isilpeko informazio erreserbatuari aplika dakizkiokeen arauen arabera egingo da.

Ikerketa horiek egiteko, Lehiaren Zuzendaritzak lege honetako 39., 39bis eta 40. artikuluetako ahalmenak erabili ahal izango ditu, eta arau horiei buruzko arau-hausteen eta zehapenen araubidea aplikatuko da.

Apartatu honetan aipatzen diren ikerketetan bildutako informazioa lege honetan aurreikusitakoa aplikatzeko erabili ahalko da.

Lege honetan ezarritakoaren babesean bildutako informazioa apartatu hau aplikatzeko erabili ahalko da.

## III. TITULUA

## **Lehiaren Batzorde Nazionala**

### **19. eta 35. bitarteko artikuluak**

(Indargabetuak)

## IV. TITULUA

**Prozedurak**

I. KAPITULUA

**Xedapen orokorrak**

***1. Sekzioa. Prozeduren Epeak***

**36. artikulua. Prozeduren gehieneko epeak.**

1. Lehia murrizten duten jokabideengatiko zehapen-prozedura amaituko duen ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hogeita lau hilabetekoa izango da, prozedura hasteko erabakia hartu zenetik zenbatzen hasita. Epe hori instrukzio-fasearen eta ebazpen-fasearen artean nola banatuko den erregelamendu bidez zehaztuko da.

2. Kontzentrazioak kontrolatzeko prozeduraren baitan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ebazpenak eman eta jakinarazteko izango duen gehieneko epea ondorengoa izango da:

a) hilabetekoa, lehen fasean, lege honen 57. artikuluan aurreikusitakoaz bat, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak jakinarazpena formalki jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

b) hiru hilabetekoa, bigarren fasean, lege honen 58. artikuluan aurreikusitakoaz bat; epe hori Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak bigarren faseari ekitea erabakitzen duenetik zenbatzen hasita.

c) hamabost egunekoa, formulario laburtua erabiltzeko baldintzak betetzen dituzten eragiketen kasuan, baldin eta, jakinarazi aurretik, Lehiaren Zuzendaritzari jakinarazpen-inprimakiaren zirriborro konfidentzial bat bidali bazaio, kontzentrazioaren alderdi formalak edo funtsezkoak argitzeko.

3. Lege honen 60. artikuluan xedaturikoaz bat Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioaren titularraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hamabost egunekoa izango da, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak bigarren fasean emandako ebazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita.

4. Kontzentrazioak kontrolatzeko prozeduraren baitan Ministroen Kontseiluak akordio bat hartu eta jakinarazteko izango duen gehieneko epea hilabetekoa izango da, Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioaren titularrak eragiketa hori Ministroen Kontseiluan aztertzekoa dela dioen ebazpena ematen duenetik zenbatzen hasita.

5. Ikerketa Zuzendaritzak hartutako ebazpenen edo egintzen aurka lege honen 47. artikuluan aurreikusitako errekurtsoei buruz Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak ebazpena eman eta jakinarazteko gehienez ere izango duen epea hiru hilabetekoa izango da.

6. Lege honen 54. artikuluan ageri den moduan, interesdunek eskaturik kautelazko neurriak hartzeari buruz Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak ebazpena eman eta jakinarazteko gehienez ere izango duen epea hiru hilabetekoa izango da. Eskaera ezetsitzat joko da isiltasun negatiboaren ondorioz, gehienez ere hiru hilabete iragan ondoren. Kautelazko neurriak hartzeko eskabidea espedientearekin hasi baino lehen aurkezten bada, hiru hilabeteko gehieneko epe hori espedienteari hasiera emateko akordioa hartzen denetik hasiko da zenbatzen.

7. 41. artikuluan aipatutako betebeharrak, ebazpenak edo akordioak zaintzeko espedienteetan, neurriak hartzeari buruz Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak ebazpena eman eta jakinarazteko gehienez ere izango duen epea hiru hilabetekoa izango da, Ikerketa Zuzendaritzak proposamena egiten duenetik zenbatzen hasita.

8. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak 55.2 artikuluan aurreikusitako aurretiazko kontsultari buruz ebazteko gehieneko epea hilabetekoa izango da, kontsulta gisa jasotzen denetik zenbatzen hasita.

**37. artikulua. Epeak luzatzeko egoerak eta epeen zenbaketa etetea.**

1. Prozedura bati buruz ebazteko legez ezarritako gehieneko epeen zenbaketa eten ahal izango da, arrazoitutako ebazpenaren bidez, ondorengo kasuetan:

a) Edozein interesduni akatsak konpontzeko edo agiriak edo erabakia hartzeko beharrezkoa den beste edozein osagai aurkezteko eskatu behar zaionean.

b) Hirugarrenei edo administrazio publikoetako beste organo batzuei akatsak konpontzeko edo agiriak edo erabakia hartzeko beharrezkoa den beste edozein osagai aurkezteko eskatu behar zaienean

c) Europar Batasunarekin edo beste herrialde batzuetako lehiaren arloko agintaritzekin lankidetzan edo koordinaturik jardutea beharrezkoa denean.

d) 47. artikuluan aurreikusten den administrazio-errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezten denean.

e) Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak frogak edo jarduera osagarriak egitea erabakitzen duenean, 51. artikuluan aurreikusitakoaz bat.

f) Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluari igorritako espedientean egindako kalifikazio juridikoan aldaketaren bat izaten denean, 51. artikuluan zehaztutako moduan.

g) Itundutako amaierara iristeko negoziazioak hasten direnean, 52. artikuluan zehaztutako moduan.

2. Aurreko apartatuan zehazturikoa hala izanik ere, prozedurez ebazteko gehieneko epea etengo da:

a) Europar Batzordeak prozedura bati hasiera eman dionean Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluak ezartzeko, gertakari berak oinarri hartuta. Epea etetea bertan behera geratuko da Europar Batzordeak hartu beharreko erabakia hartzen duenean.

b) Lehiaren Batzorde Nazionalak jakinarazleei akatsak konpontzeko eskatzen dienean, edo iritzia osatzeko agiriak edo beste elementu batzuk eskatzen dizkienean, kontzentrazioak kontrolatzeko espedienteaz ebazteko beharrezkoak direlako; hori guztia lege honen 55. artikuluaren 4 eta 5. apartatuetan aurreikusitakoaz bat.

c) Europar Batzordeari informazioa ematerakoan, 2002ko abenduaren 16ko Kontseiluaren 1/2003 Erregelamenduan (CE), Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluetan lehiari buruz aurreikusitako arauak aplikatzearen gainekoan, 11.4. artikuluan aurreikusitakoaren baitan, Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluak ezartzeagatik egindako ebazpen-proposamen baten inguruan.

d) Arautzaile sektorialei txostena eskatzen zaienean, lege honen 17.2.c) eta d) artikuluan ezarritakoaren baitan. Etendako epe hori ez da inoiz ere hiru hilabetetik gorakoa izango.

3. Ebazteko gehieneko epeak eteteak ez du esan nahi, nahitaez, prozesua izapidetzea eten denik.

4. Salbuespenezko kasuetan, ebazteko gehieneko epea luzatzea erabakitzeko aukera egongo da, horretarako arrazoien berri argi ematen bada. Gehieneko epea luzatzea erabakitzen bada, luzatze hori ezingo da izan prozedura izapidetzeko jarrita zegoen epea baino handiagoa.

5. Epeak eten edo luzatzeaz erabakiko duten akordioak interesdunei jakinarazi beharko zaizkie, eta horien aurka ezin izango da errekurtsorik jarri administrazio-bidean.

**38. artikulua. Administrazioaren isiltasunaren ondorioak.**

1. Debekatutako akordio eta jokabideen arloko zehapen-prozedurez ebazteko 36.1. artikuluan zehaztutako gehieneko hogeita lau hilabeteko epea igarotzeak prozedura horren iraungipena ekarriko du.

2. Kontzentrazioak kontrolatzeko lehen fasearen ebazpena emateko lege honen 36.2.a) artikuluan zehaztutako gehieneko epea igarotakoan, egindako eskaera onetsi egin dela ulertu beharko da, administrazioaren isiltasunaren ondorioz, baina salbuespena izango dira lege honen 9.5, 55.5 eta 57.2.d) artikuluetan aipatzen diren kasuak.

3. Kontzentrazioak kontrolatzeko bigarren fasearen ebazpena emateko lege honen 36.2.b) artikuluan zehaztutako gehieneko epea igarotakoan, kontzentrazioa onetsi egin dela ulertu beharko da, administrazioaren isiltasunaren ondorioz, baina salbuespena izango dira lege honen 9.5, 55.5 eta 57.2.d) artikuluetan aipatzen diren kasuak.

4. Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioaren titularrak Ministroen Kontseiluaren esku hartzeaz erabakitzeko eta, beharrezkoa bada, Kontseiluak berak kasuan kasuko akordioa hartzeko, lege honen 36.3. eta 36.4. artikuluan aurreikusitako epeak igarotakoan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ebazpena berehala betearaztekoa izango da, lege honen 60.4. artikuluan aurreikusitakoaz bat.

5. Ikerketa Zuzendaritzaren ebazpen eta egintzen aurka jarritako errekurtsoez ebazteko Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak lege honen 36.5. artikuluan aurreikusitakoaren arabera duen epea igarotakoan, errekurtsoa ezetsi dela ulertuko da, administrazioaren isiltasuna dela eta.

6. Zaintzeko espedienteen arloan edo kautelazko neurriak hartzeari buruz lege honen 36.6 eta 36.7. artikuluan Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari ebazteko ematen zaion epea igarotakoan, eskaera ezetsi dela ulertuko da, administrazioaren isiltasuna dela eta.

***2. Sekzioa. Lehiaren Batzorde Nazionalaren ahalmenak***

**39. artikulua. Laguntzeko eta informatzeko betebeharra.**

1. Pertsona fisiko edo juridiko orok eta edozein administrazio publikotako erakunde guztiek lagundu beharko diote Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari, eta Batzordeak eskatuz gero, eskatutako epearen barruan, esku artean dituzten datuak eta informazio guztia eman beharko diote, lege honek dioena ezartzeko beharrezkoa baldin bada.

Epe hori 10 egunekoa izango da, non eta eskatutakoaren ezaugarriengatik edo egoera zehatzaren gorabeherengatik, behar bezala arrazoituta, beste epe bat zehazten ez den.

Informazio errekerimendu horiek proportzionatuak izango dira eta ez dituzte hartzaileak behartuko lehiari buruzko araudia haustea onartzera. Behar den informazio guztia emateko betebeharra behartutako subjektuentzat irisgarria den informazioari dagokio, informazioa gordetzen den euskarria edozein dela ere, hala nola ordenagailu eramangarriak, telefono mugikorrak, bestelako gailu mugikorrak edo hodeian biltegiratzea.

2. Nork bere kabuz edo Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak eskatuta laguntzeak ez du esan nahi kasuan kasuko prozeduran interesduna izango denik.

**39 bis artikulua. Elkarrizketak.**

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalarekin lankidetzan aritzeko betebeharraren barruan sartzen da enpresa edo enpresa-elkarte bateko edozein ordezkariri, beste pertsona juridiko batzuen

edozein ordezkariri eta edozein pertsona fisikori elkarrizketak egiteko ahalmena, baldin eta lege honetan ezarritakoa aplikatzeko beharrezkoak izan daitezkeen datu eta informazioak eduki baditzakete.

2. Deialdia egin ondoren egiten diren elkarrizketak elkarrizketatuari deitzen zaion egintzan arrazoituko dira.

3. Elkarrizketek ezin izango dituzte hartzaileak beren aurka deklaratzera behartu, ezta lehiari buruzko araudia haustea onartzera ere. Elkarrizketatuek nahi duten legelariaren laguntza izan dezakete elkarrizketan parte hartzeko.

4. Elkarrizketak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren bulegoetan egingo dituzte bertako langileek eta, hala badagokio, Batzordeak izendatutako beste agintari batzuetako langileek. Halaber, Lehiaren Zuzendaritzak proposatuta, elkarrizketak enpresa edo erakunde baten egoitzan egin ahal izango dira, enpresa edo erakunde horrek baimena eman ondoren, edo sistema digitalen bidez, bideokonferentziaren edo antzeko sistemaren baten bidez, irudia eta soinua bi norabidetan eta aldi berean komunikatu ahal izateko, eta elkarrizketatuaren eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko langileen arteko ikusmen-, entzumen- eta hitzezko elkarreragina lortzeko.

5. Jarduketaren izaerak hala eskatzen duenean, elkarrizketak grabatu eta transkribatu ahal izango dira, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren baliabide materialak erabiliz, eta elkarrizketatuak ezin izango ditu grabatu. Halaber, elkarrizketaz arduratzen diren langileek elkarrizketaren akta egiten ahalko dute, edukia jasota gera dadin. Elkarrizketatuak elkarrizketaren aktaren, grabazioaren edo transkripzioaren kopia eska dezake.

Egindako grabazioak, transkripzioak eta aktak dokumentu publikoak izango dira, eta horiek formalizatzeko arrazoiak frogatu egingo dituzte, isilpeko informazioaren tratamenduari buruz 42. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

**40. artikulua. Ikuskatzeko ahalmenak.**

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren, lege honek esleituak dituen eginkizunen esparruan, ikuskatzeko ahalmenak artikulu honetan eta haren erregelamenduzko garapenean xedatutakoaren arabera erabiliko dira. Hori guztia, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzen duen ekainaren 4ko 3/2013 Legearen 27. artikuluan arautako Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren ikuskatze-ahalmenen kalterik gabe, beste lege batzuek esleitutako eginkizunen esparruan.

2. Lehiaren Zuzendaritzak behar diren ikuskapen guztiak egin ahal izango dizkie, aldez aurretik jakinarazi gabe, enpresei eta enpresa-elkarteei, baita enpresaburuen, administratzaileen eta lege hau aplikatzeko garrantzitsua den informazioa izan dezaketen enpresetako langileen helbide partikularrari ere.

Ikuskapen horiek egin ahal izango dira merkatu jakin batean arau-hausteren bat egon daitekeela jakiten denean, lege honetan ezarritakoaren arabera. Merkatu horretan dagoen edozein entitate edo subjektu ikuskatu ahal izango da, jokabide horietan parte har dezakeen egiaztatzeko.

Horretarako, Lehiaren Zuzendaritzako titularrak ikuskapen-agindu bat emango du, eta bertan adieraziko ditu ikertutako subjektuak, ikuskapenaren xedea eta helburua, zein egunetan hasiko diren eta zein zehapen jasota dauden lege honetan, baldin eta behartutako erakunde edo subjektuak ikuskapenen mende jartzen ez badira edo ikuskapen-lana oztopatzen badute, bai eta ikuskapenaren aurka errekurtsoa jartzeko eskubidea ere.

3. Lehiaren Zuzendaritzak egiten dituen ikuskapenak honela egin daitezke:

a) Ikuskatutako erakundearen edozein bulego, edo lokaletan.

b) Enpresaburuen, administratzaileen eta enpresetako beste kide batzuen etxe partikularrean eta beste edozein bulego, lokal edo lekutan, baldin eta horietan ikuskatutako egintzetarako garrantzitsuak diren frogak edo agiriak egon daitezkeela uste bada.

c) Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren lokaletan bertan, jarduerak egin behar diren elementuak bertan azter badaitezke edo etxez etxeko ikuskapen batean jasotako dokumentuen bilaketak eta kopiak edo laburpenak aztertu eta egiteko.

4. Lehiaren Zuzendaritzako titularrak behar bezala baimendutako Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko langileak agintaritzaren agentetzat hartuko dira ikuskatze-lanak egiten dituztenean, eta, bulego publikoetatik kanpo hala eskatuz gero, hori egiaztatu beharko dute.

Agintari publikoek behar den babesa eta laguntza emango diete Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko ikuskatzaileei, ikuskatze-lanak egiteko, baita prebentzio-neurri gisa ere, ikuskapenaren menpe daudenek izan dezaketen oposizioa gainditzeko.

Lehiaren Zuzendaritzako titularrak baimendutako laguntzaileak izendatu ahalko ditu ikuskatzaileei laguntza eta asistentzia emateko, ikuskatze lana egin dezaten.

5. Ikuskapenaren ardura duten langileek beren jarduketen akta eginen dute. Egindako aktak agiri publikoak izango dira, eta horiek formalizatzeko arrazoiak frogatu egingo dituzte.

6. Lehiaren Zuzendaritzako titularrak baimendutako Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko ikuskatzaileek, bai eta ikuskapen lana egiteko laguntza eta asistentzia emateko izendatutako langileek ere, ikuskatzeko ahalmen hauek izanen dituzte:

a) Ikuskatutako erakunde eta subjektuen edozein lokal, instalazio, lur eta garraiobidetara sartzea.

b) Ikuskatutako erakundearen lokalak, liburuak edo dokumentazioa, sistema informatikoak edo gailu elektronikoak eta gainerako ondasunak ikuskatzeko behar den denboran eta neurrian zigilatzea.

c) Ikuskatutako erakundeak edo subjektuak eskura dituen liburuak eta bestelako agiriak aztertzea, zein euskarritan gordetzen diren kontuan hartu gabe. Ahalmen horrek honako hauek bilduko ditu bereziki:

i. Paperezko dokumentazio guztia ikuskatzea, artxibo fisikoak, kontratu-dokumentuak edo posta komertziala barne.

ii. Euskarri informatikoan edo elektronikoan dagoen dokumentazio eta informazio guztia ikuskatzea, bai eta ikuskatutako subjektu edo entitateak eta haren zerbitzuko langileek erabiltzen dituzten korrespondentzia mota guztiak ere, irakurri gabe agertzen diren edo ezabatu diren kontuan hartu gabe.

Dokumentazio eta informazio horretan sartuko dira, batetik, ikuskatutako erakundearen eta haren zerbitzuko langileen sistema informatikoetan eta gailu elektronikoetan gordeta dagoena, eta, bestetik, hirugarrenek emandako sistema, zerbitzu informatiko edo gailuetan, hodeian biltegiratzeko sistema eta zerbitzuetan eta ikuskatutako erakundeak eskura duen beste edozein.

d) Edozein formatutan, c) letran aipatutako liburu edo dokumentuen kopiak edo laburpenak egitea edo lortzea.

e) Aurreko c) letran aipatutako liburu edo dokumentuak hamar egunez atxikitzea gehienez, eta liburu edo dokumentu horien kopiak edo laburpenak egitea edo lortzea, edozein formatutan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren lokaletan edo izendatzen den beste edozein lokaletan.

f) Ikuskatutako erakundeko langileen edozein ordezkariri edo kideri ikuskatzeko garrantzitsuak diren gertaerei edo agiriei buruzko azalpenak eskatzea, eta bere erantzunak jasota gera daitezen.

g) Ikuskatzaileek ikuskatutako erakundeetako langileak edo ikertutako pertsonak fisikoki agertzeko eskatu ahal izango dute, bai eta horien esku dagoen edozein dokumentazio edo langile horiek erabiltzen duten edozein baliabide elektroniko aurkezteko ere.

7. Entitateak Lehiaren Zuzendaritzako titularrak agindutako ikuskapenen menpe egotera behartuta daude. Betebehar horretan sartzen dira ikuskatutako enpresen matrizeak, filialak edo enpresa-talde bereko enpresak, Merkataritza Kodearen 42. artikuluaren arabera, enpresa horien eta ikertutako gertakarien artean zuzeneko lotura dagoen heinean. Ikuskatutako erakundeak ikuskapenari uko egiten badio dagokion ikuskapen-agindua jakinarazi ondoren, zehapen-espedientea irekiko da, arau-hauste independente gisa, 62. artikuluan ezarritakoaren arabera. Hala ere, inguruabar astungarritzat hartuko da 64. artikulua aplikatuz ezar dakiokeen zehapenaren zenbatekoa finkatzeko.

Ikuskatutako subjektuek eta erakundeek eta beren langileek, zuzendaritzako kideak, langileak eta horietan lan egiten duten kanpoko langileak barne, laguntza eman beharko dute ikuskapena egiteko, bereziki, ikuskatzaileei, beren eginkizunak betetzean, beren lokal, instalazio, lur eta garraiobideetarako sarbidea erraztuz, bai eta eskatzen zaien dokumentazio eta informazio guztia ere, edozein dela ere euskarria eta tokia, 5. apartatuko f) epigrafearen esparruan ikuskatzaileek egiten dizkieten galderei egiazki erantzutea. Era berean, ikuskapenaren praktika errazteko behar diren baliabide tekniko eta giza baliabideak eman beharko dituzte, bereziki euskarri elektronikoan informazioa benetan eskuratzen dela bermatzeko.

8. 6. apartatuaren a) eta b) epigrafeetan adierazitako ahalmenak erabiltzeko, baimen judiziala beharko da, baldin eta ahalmen horrek berekin badakar bizilekuaren bortxaezintasunerako funtsezko eskubidea murriztea edo ikertutako enpresen edo enpresa-elkarteen berezko bulegoetara, lurretara edo garraiobideetara sartzea. Kasu horretan, Lehiaren Zuzendaritzak, ikuskapena egin aurretik, baimena eskatu ahalko dio organo judizial eskudunari, eta organo horrek gehienez ere 48 orduko epean ebatziko du.

Era berean, ahalmen horiek erabili ahal izango dira, ikuskatutako entitate edo subjektuek berariazko baimena eman ondoren, ikuskapen-aginduan jasotako ikuskapenaren xedearen, lege honetan aurreikusitako ikuskapen-ahalmenen, ikuskapenaren aurka egiteko eskubidearen eta oposizio horren ondorioen berri eman ondoren.

9. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak eskuratzen dituen datuak eta informazioak lege honetan aurreikusitako xedeetarako baizik ez ditu erabiliko.

**41. artikulua. Betebeharrak, ebazpenak eta erabakiak betetzen direla zaintzea.**

1. Lege honetan eta legea garatuko duten arauetan aurreikusitako betebeharrak edo legea oinarri hartuta emandako ebazpenetan edo erabakietan jasotzen diren betebeharrak betetzen direla zainduko du Lehiaren Batzorde Nazionalak, eta hori, jokabide murriztaileen inguruan zein kautelazko neurrien inguruan nahiz kontzentrazioak kontrolatzearen inguruan.

Erregelamendu bidez eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren ebazpenean bertan edo prozedurari amaiera ematen dion Ministroen Kontseiluaren erabakian ezarritako moduan eginen da zaintza.

Lehiaren Batzorde Nazionalak lehia defendatzeko organo autonomikoen eta erregulatzaile sektorialen lankidetza eskatu ahalko du, betebeharrak, ebazpenak eta erabakiak zaindu eta betetzeko.

2. Lehiaren Batzorde Nazionalaren betebeharrak, ebazpenak edo erabakiak betetzen ez badira, Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, zehapen eta hertsatzeko isunak ezartzeari buruz erabakiko du, ordenamenduan aurreikusitako nahitaezko betearazpeneko beste neurri batzuk hartzeari buruz eta, hala badagokio, deskontzentrazioari buruz.

### *3. Sekzioa. Prozeduraren printzipio orokorrak*

**42. artikulua. Isilpeko informazioaren tratamendua.**

1. Prozeduraren edozein unetan, isilpekotzat jotako datuak edo agiriak isilpean gordetzeko agindu ahal izango da, ofizioz edo aldeetako batek eskatuta, eta agiri horiekin aparteko atal bat egitea. Dena den, lege honen 18. artikuluan esaten dena eta 2002ko abenduaren 16ko Kontseiluaren 1/2003 Erregelamenduan (CE), Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluetan lehiari buruz aurreikusitakoa, kontuan izan beharko dira.

2. Kasu guztietan, aparteko atal berezi bat eratuko da, isilpekoa izango dena, 2002ko abenduaren 16ko 1/2003 Erregelamenduaren (CE) 11.4. artikuluan aurreikusten den Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren ebazpen-zirriborroari erantzunez Europar Batasunak bidalitako informazioarekin.

3. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak isilpekotasun aparteko atal berezia osatuko du, errukitasun-eskaerekin eta haren esparruan aurkezten diren adierazpenekin. Hasitako aldeek agiri horiek eskuratzen ahalko dituzte, Lehiaren Zuzendaritzak egindako egozpenari erantzuteko. Nolanahi ere, hasitako aldeek ezin izango dute pertsona fisiko edo juridikoen aitorpenen kopiarik lortu, ez eta, eskaera horien esparruan aurkezteko, errukitasun-eskatzaileek berariaz egindako adierazpen gehigarririk ere. Horrek ez du esan nahi, hala ere, hasitako aldeek agiri osagarriak eskuratu eta eskuratu ahal izango ez dituztenik, baldin eta agiri horiek errukitasun-eskatzaileak aurkezten baditu arau-haustea gertatu dela frogatzeko, eta ez dela deklarazio hutsa. Lehiaren Zuzendaritzak egindako egozpenari erantzuteko ez ezik, agiri horiek eskuratu ahal izan dituzten hasitako alderdiek, soil-soilik, erabili ahal izango dute errukitasun-eskaeretatik ateratako informazioa, baldin eta beharrezkoa bada organo jurisdikzional nazionalen aurrean beren defentsa-eskubideak erabiltzeko, sarbidea eman den gaiarekin zuzeneko lotura duten gaietan, eta soilik jurisdikzio-berrikuspenak honako hauei eragiten badie:

a) Kartel bateko parte-hartzaileen artean Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak solidarioki ezarritako isun bat banatzea,

b) Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ebazpen bat, lege honen 1. edo 2. artikuluak edo Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. edo 102. artikuluak hautsi direla egiaztatzen duena.

**43. artikulua. Datuak isilpean gorde beharra.**

1. Lege honetan aurreikusten diren espedienteak izapidetzen parte hartu duten guztiek, edo beren lanbideagatik, karguagatik edo alderdi gisa parte hartzeagatik horien berri dutenek, espediente horiengatik ezagututako gertakarien berri isilpean gorde beharko dute, eta beste horrenbeste egin beharko dute beren karguengatik ezagututako isilpeko kontu guztiekin ere, baita beren kargu edo eginkizunak utzitakoan ere.

2. Datuak isilpean gorde beharra ez betetzea beti diziplinaren arloko arau hauste oso larria izango da, alde batera utzirik dagozkion erantzukizun penal eta zibilak.

**44. artikulua. Jarduerak artxibatzea.**

Lehiaren Batzorde Nazionalak prozedura batekin ez hastea edo hasitako jarduerak edo espedienteak artxibatzea erabakitzeko aukera izango du, eskumenik edo objekturik izan ez edo eskumena edo objektua galduz gero. Zehazki esanda, horietako egoeraren baten aurrean dagoela joko da ondorengoetan:

a) 2002ko abenduaren 16ko Kontseiluaren 1/2003 Erregelamenduan (CE), Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluetan lehiari buruz aurreikusitakoa aplikatzeari buruzkoaren ondorioz

antzemandako edo salatutako jokabideak auzipetzeko eskumenik ez duenean Lehiaren Batzorde Nazionalak, edo erregelamendu horretan salaketak ezesteko aurreikusitako baldintzak gertatzen direnean.

b) Jakinarazitako operazioa ez denean Lehiaren Batzorde Nazionalak kontrolatu beharreko kontzentrazioetako bat lege honen arabera.

c) Jakinarazitako kontzentrazioaren berri Europar Batzordeari ematen zaionean, enpresen arteko kontzentrazioak kontrolatzeari buruzko 2004ko urtarrilaren 20ko 139/2004 Erregelamenduaren (CE) 22. artikulua betez.

d) Kontzentrazio bateko alderdiek uko egiten diotenean baimena eskatzeari, edo Lehiaren Batzorde Nazionalak informazio fidagarriaren bidez dakienean alderdi horiek ez dutela kontzentrazioa aurrera eramateko asmorik.

**45. artikulua. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen osagarritasuna.**

Lehiaren defentsaren arloko administrazio-prozedurek lege honetan eta lege hau garatuko duten arauetan esaten dena bete beharko dute, eta horren osagarri moduan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean esaten dena, lege honen 70. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko bada ere.

**45 bis artikulua. Prozedura Europako araudiak bermatutako oinarrizko eskubideetara egokitzea.**

Lege honetan eta berau garatzen duen araudian arautako prozeduretan, Europar Batasuneko Zuzenbideko printzipio orokorrak eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna eta aplikatzekoa den legeria nazionala uneoro beteko direla bermatuko da.

**46. artikulua. Prozesu penalaren prejudizialitatea.**

Kontu prejudizial penal bat badago eta hori ezin bada alde batera utzi ebazpena emateko, edo ebazpenaren edukiari zuzenean eragiten baldin badio kontu horrek, egoera horrek prozedura etetea ekarriko du, kontuaz dagokien organo penalek erabakitzen ez duten artean.

***4. Sekzioa. Errekurtsoak***

**47. artikulua. Ikerketa Zuzendaritzaren ebazpenen eta berak agindutako egintzen aurkako administrazio-errekurtsoa.**

1. Ikerketa Zuzendaritzaren ebazpen eta egintzen aurka, defentsa-gabezia edo eskubide edo bidezko interesetan galera konponezina sortzen badute, errekurtsoa jartzeko modua egongo da Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren aurrean, hamar eguneko epean.

2. Kontseiluak ez ditu onartuko epez kanpo aurkeztutako errekurtsoak, bestelako izapiderik gabe.

3. Errekurtsoa jasotakoan, Kontseiluak espedientea agerian jarriko du, alderdiek alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten, hamabost eguneko epean.

**48. artikulua. Lehiaren Batzorde Nazionalaren lehendakariaren eta Kontseiluaren ebazpenen eta egintzen aurkako errekurtsoak.**

1. Lehiaren Batzorde Nazionalaren lehendakariaren eta Kontseiluaren ebazpenen eta egintzen aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu administrazio-bidean, eta administrazioarekiko auzien errekurtsoa baino ezin izango da aurkeztu, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako baldintzetan.

2. Lege honen 58. artikuluko 6. apartatuan aurreikusitako egoeretan, administrazioarekiko auzien errekurtsoa jartzeko epea hasiko da zenbatzen Ekonomia eta Ogasun Ministroaren ebazpena edo Ministroen Kontseiluaren akordioa jakinarazi eta biharamunean edo lege honen 36. artikuluko 3. edo 4. apartatuetan zehaztutako epeak igarotakoan, Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ebazpena eraginkorra eta betearaztekoa den eta administrazio-bideari amaiera eman dionetik.

II. KAPITULUA

**Debekatutako jokabideen arloko zehapen-prozedura**

***1. Sekzioa. Prozeduraren instrukzioa egitea***

**49. artikulua. Prozeduraren hasiera.**

1. Prozedura Lehiaren Zuzendaritzak hasiko du ofizioz, bere kabuz edo Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak eskatuta edo salaketaren bat izan delako. Edozein pertsona fisiko edo juridikok, interesduna izan edo izan gabe ere, lege honek arautzen dituen jokabideen inguruko salaketa aurkezteko aukera izango du, eta erregelamendu bidez zehaztuko da salaketaren edukia. Debekatutako jokaeren zantzu arrazionalak ikusten direnean, Lehiaren Zuzendaritzak espedientea irekiko du eta interesdunei jakinaraziko die prozedurari hasiera emateko erabakia, artikulu honetako 4. apartatuan aurreikusitako kasuan izan ezik.

2. Arau-hausteren bat egon daitekeela jakinez gero, Lehiaren Zuzendaritzak informazio erreserbatu bat egin dezake, baita tartean diren enpresen etxez etxeko ikuskapena ere, zehapen-espedientea irekitzea justifikatzen duten inguruabarrak gertatzen diren ala ez aldez aurretik zehazteko.

3. Lehiaren Zuzendaritzak proposatuta, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak erabaki ahal izango du lege honetan edo Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. edo 102. artikuluetan debekatutako jokabideak ustez gauzatzearen ondoriozko prozedurak ez hastea, eta jarduerak artxibatzea, arau-hausterik ez dagoela uste badu.

2018ko abenduaren 11ko 2019/1 Zuzentarauaren (EB) 10.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak Europako Batzordeari jardueren artxiboaren berri emango dio, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. edo 102. artikuluetan oinarritutako ikerketa bat hasi dela jakinarazi dionean.

4. Salaketa eginez gero, Lehiaren Zuzendaritzak jarduketarik ez hastea erabaki ahal izango du, bertan aipatzen diren gertakariak ikertzea ez dela lehentasunezkotzat jotzen baitu. Horretarako, Kontseiluari jakinaraziko dio prozedura ez hasteko asmoa duela. 15 eguneko epean Kontseiluak ez badu horren kontrako iritzirik eman, Lehiaren Zuzendaritzak salatzaileari jakinaraziko dio.

Besteak beste, salaketa hauek ez dute lehentasunik izango:

a) Froga-elementu gutxi edo zantzu ahulak dituzte, eta Lehiaren Zuzendaritzak, horretarako baliabideak eskainiz, legez kanpoko jokabidea frogatzeko aukera txikia da.

b) Eragin potentzial mugatuko legez kanpoko jokabideei dagozkie, edo kontsumitzaileari edo ekoizpen-faktoreen, ondasunen edo zerbitzuen merkatuen lehiakortasunari kalte potentziala txikia da.

c) Lehia zaintzeko eta sustatzeko beste lege-tresna batzuen bidez prebenitu edo desagertaraz daitezkeen jokabideak dira, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren baliabideak modu eraginkorragoan erabiliz.

Hori guztia, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalarentzat bere Kontseiluak ekainaren 4ko 3/2013 Legearen 20.16 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz ezartzen dituen lehentasunen eta lege

horren 3.2 artikuluan aurreikusitako Gobernuaren politika orokorra zuzentzeko ahalmenen kalterik gabe.

**50. artikulua. Zehapen-espedientearen instrukzioa egitea.**

1. Espedientea ireki eta gero, Lehiaren Zuzendaritzak eman beharreko instrukzio-egintzak egingo ditu, gertakariak argitzeko eta erantzukizunak zein diren zehazteko.

2. Lege honen 1.3. artikuluan xedaturikoa oinarri hartuta babesa eskatzen duten enpresek edo enpresa-elkarteek apartatu horretan bertan aipatzen diren baldintzak betetzen direla frogatu beharko dute.

3. Arau-haustea izan daitezkeen gertakariak horiek zehazteko agiri batean jasoko dira, eta interesdunei jakinaraziko zaie, horri erantzuteko aukera izan dezaten hilabeteko epean, eta, beharrezkoa izanez gero, egoki iritzitako frogak aurkez ditzaten.

4. Behar diren instrukzio-egintzak egin ondoren, Lehiaren Zuzendaritzak ebazpen-proposamena egingo du, eta interesdunei eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluari jakinaraziko zaie, hilabeteko epean Kontseiluan egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten. Ebazpen-proposamenak modu arrazoituan finkatuko ditu frogatutzat jotzen diren gertakariak eta horien kalifikazio juridiko zehatza, eta zehaztuko du zein arau-hauste diren, hala badagokio, pertsona erantzulea edo erantzuleak, proposatzen den zehapena, isunaren salbuespena edo murrizketa barne, 65. eta 66. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta egindako frogen balorazioa, bereziki erabakiaren oinarrizko oinarriak direnak.

***2. Sekzioa. Zehapen-prozedura ebaztea***

**51. artikulua. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluan ebazteko prozedura.**

1. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, bere kabuz edo interesdunen batek hala eskatuta, Ikerketa Zuzendaritzak instrukzioan egindako frogez gainera beste batzuk egiteko erabaki ahal izango du, eta baita beste jarduera osagarri batzuk egiteko erabaki ere, bere iritzia zein izango den erabakitzeko kontu zehatz batzuk argitzearren. Beste froga batzuk egiteko edo jarduera osagarriak egiteko erabakiaren berri interesdunei jakinarazi beharko zaie, eta kasu horretan, zazpi eguneko epea utziko zaie egoki iritzitako alegazioak aurkezteko modua izan dezaten. Erabaki horretan, ahal den guztietan, froga berriak egiteko zenbat denbora izango den zehaztuko da.

2. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak aginduko dizkion frogak eta jarduera osagarriak egin beharko ditu Ikerketa Zuzendaritzak.

3. Interesdunek proposatuz gero, Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak ikustaldia izan dadila erabakitzeko modua izango du.

4. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ustez, Ikerketa Zuzendaritzak egindako proposamenean Kontseiluari aurkezten zaion auziari emandako kalifikazioa ez baldin bada beharbada egokia, beste kalifikazio bat egin eta interesdunei eta Zuzendaritzari aurkeztuko die, hamabost eguneko epean egoki iritzitako alegazioak egin ditzaten.

5. Jarduerak amaitutakoan, eta beharrezkoa bada, lehiari buruz aurreikusitako arauak aplikatzearen buruz 2002ko abenduaren 16ko Kontseiluaren 1/2003 Erregelamenduan (CE), Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluetan esaten denaz bat Europar Batzordeari informazioa eman ostean, Lehiaren Batzorde Nazionalak ebatzi egingo du.

**52. artikulua. Itundutako amaiera.**

1. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, debekatutako akordio eta jokabideen inguruko zehapen-prozedura amaitzea ebatzi ahal izango du, baldin eta ustezko arau-hausleek konpromiso batzuk hartzea proposatzen badute, eta horien bidez espedientea irekitzea eragin duten jokabideek lehian zituzten ondorioak konpontzen badira eta interes publikoa behar beste bermatzen bada.

2. Konpromiso horiek lotesleak izango dira eta prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean jasotzen direnetik aurrera izango dituzte ondorioak.

3. Prozedura ezin izango da artikulu honetan zehazten den moduan amaitu, 50.4. artikuluan aurreikusitako proposamen-txostena aurkeztu eta gero.

**53. artikulua. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ebazpenak.**

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ebazpenek ondorengoa adieraziko dute:

a) Lege honetan edo Europako Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. eta 102. artikuluetan debekatutako jokabideak izan direla.

b) Duten garrantzi txikiagatik, lehiari nabarmen eragiteko gaitasunik ez duten jokabideak izan direla.

c) Ez dela egiaztatu debekatutako jokabiderik izan denik.

2. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ebazpenek ondorengoa edukiko dute:

a) Debekatutako jokabideak epe jakin batean bertan behera uzteko agindua.

b) Baldintza edo betebehar jakin batzuk ezartzea, egiturei edo jarrerei dagozkienak. Egiturazko baldintzen edo eraginkortasun baliokideko jarreren baldintzen arteko hautaketan, enpresarentzat arinena dena hautatuko da.

c) Interes publikoaren kontrakoak izateagatik debekatutako jokabideen ondorioak mugiarazteko agindua.

d) Isunak ezartzea.

e) Jarduerak artxibatzea, lege honetan aurreikusitako kasuetan.

f) Eta lege honek baimentzen duen beste edozein neurri.

3. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Lehiaren Zuzendaritzak proposaturik, zeinak bere kabuz edo aldeetakoren batek eskaturik jardungo duen, bere ebazpenetan jarritako baldintzak eta betebeharrak berrikusteko aukera izango du, ebazpen horiek ematean kontuan izan ziren baldintzetan aldaketa nabarmen eta iraunkorrak izan direla egiaztatzen bada.

4. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, bere kabuz edo aldeetakoren batek eskaturik, berak emandako ebazpenetan ilun ageri diren kontzeptuak argitu edo izandako hutsegiteak konpontzeko aukera izango du.

Argitu beharrekoak argitzeko edo gehitu beharrekoa gehitzeko, bost egun baliodunneko epea izango da, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen denetik zenbatzen hasita, edo argitzeko edo gehitzeko eskaria egin denetik zenbatzen hasita; dena den, eskari hori jakinarazpena jaso eta hurrengo hiru egunetan egin beharko da, eta epe hori ezin izango da luzatu.

Akats material eta aritmetikoak edozein unetan zuzentzeko modua egongo da.

***3. Sekzioa. Kautelazko neurriak***

**54. artikulua. Kautelazko neurriak hartzea.**

1. Espedienteari hasiera emandakoan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, bere kabuz edo aldeetakoren batek eskaturik, eta Lehiaren Zuzendaritzak proposatuta edo aldez aurretik txostena eginda, egoki iritzitako kautelazko neurriak hartzeko aukera izango du, dena delako unean kaleratuko den ebazpena eraginkorra izango dela ziurtatzeko.

2. Kautelazko neurriak arrazoituak izango dira, proportzionatuak, aldi baterako mugatuak eta bere garaian ematen den ebazpenaren eraginkortasuna bermatzera zuzenduak, eta ezin izango dira hartu konpontzen zailak edo ezinezkoak diren kalteak sortzen dituztenak. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. eta 102. artikuluak aplikatzeko prozeduren kasuan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak Lehiaren Europako Sareari jakinaraziko dio kautelazko neurri horiek ezarri direla.

III. KAPITULUA

## Kontzentrazio ekonomikoak kontrolatzeko prozedura

### *1. Sekzioa. Jakinarazpena*

**55. artikulua. Kontzentrazio ekonomikoaren jakinarazpena.**

1. Kontzentrazio ekonomikoak kontrolatzeko prozedura kontzentrazioaren jakinarazpena behar bezala jasota hasiko da, hau da, erregelamendu bidez zehaztutako jakinarazpen-inprimakiaz bat jasotzen denean.

2. Jakinarazpena aurkeztu aurretik, Lehiaren Batzorde Nazionalari ondorengoei buruzko argibideak eskatzeko aukera egongo da:

a) dena delako operazioa 7. artikuluan aurreikusitakoen arteko kontzentrazioetako bat den ala ez,

b) dena delako kontzentrazioak 8. artikuluan derrigorrez jakinarazteari buruz aurreikusitako atalase-maila gainditzen duen ala ez.

3. Beharbada kontrolatu beharrekoa den kontzentrazio bat dagoela jakinez gero, Ikerketa Zuzendaritzak aldez aurretiko jarduera batzuk egiteko aukera izango du, hain zuzen ere 9. artikuluan esaten denaren arabera derrigorrez jakinarazteko baldintzak gertatzen diren ala ez jakiteko.

4. Lehiaren Batzorde Nazionalak jakinarazleari edozein informazioren edo derrigorrezko agirien falta konpontzeko eta jakinarazpen-inprimakia betetzeko eskatuko dio, eta horretarako 10 eguneko epea utziko.

Zuzendu beharrekoa ez bada zuzentzen emandako epearen barruan, jakinarazleak bere eskaerari uko egin diola ulertuko da, eta Lehiaren Batzorde Nazionalak jarduerak artxibatzeko erabakitzeko aukera izango du.

5. Lehiaren Batzorde Nazionalak prozeduraren edozein unetan eskatu ahal izango dio jakinarazleari ebatzi ahal izateko beharrezkoak diren agiriak edo beste informazio batzuk hamar eguneko epeak aurkezteko.

Jakinarazleak ez badu eskatu zaiona betetzen edo horretarako ezarritako epetik kanpo egiten badu, ez du izango 38. artikuluan aurreikusitako isiltasun positiboaren onuraz baliatzeko aukerarik.

6. Prozeduraren edozein unetan, Lehiaren Batzorde Nazionalak hirugarren operadoreei egoki iritzitako informazioa eskatzeko aukera izango du, kontzentrazioa behar bezala baloratu ahal izateko. Era berean, administrazio bereko edo beste administrazio bateko erakundeei ere ebazteko beharrezko iritzitako txostenak eskatuko dizkie.

**56. artikulua. Jakinarazpenaren inprimaki laburtua.**

1. Erregelamendu bidez zehaztuko den jakinarazpenen inprimaki laburtu bat aurkezteko aukera egongo da, beste batzuen artean ondorengo egoeretan erabili ahal izateko:

a) Operazioko alderdien artean gainjartze horizontal edo bertikalik gertatzen ez denean, horietako batek ere ez duelako jarduera ekonomikorik burutzen merkatu geografiko berean eta erreferentziazko produktu berarekin, edo produkzio eta merkaturatze-prozesuaren baitan behetik gora edo goitik behera elkarlotutako merkatuetan.

b) Alderdiek merkatuan duten parte hartzeak garrantzi gutxi izanik, horrek lehiari ezin izango dionean nabarmen eragin, erregelamendu bidez zehaztuko denaz bat.

c) Aldeetako batek enpresa baten edo hainbat enpresaren erabateko kontrola, edo enpresa zati batzuk eskuratzen dituenean horiekiko multzoaren kontrola dagoeneko baduenean.

d) Partizipazio bidezko enpresa bat denean, enpresa horrek ez duenean Espainian jarduerarik burutzen eta burutzerik aurreikusita ez duenean, edo jarduera horiek oso txikiak direnean.

2. Lehiaren Batzorde Nazionalak jakinarazpenen inprimaki arrunta aurkez dadila eskatzeko aukera izango du, nahiz eta inprimaki laburtua aurkezteko baldintzak betetzen diren, baldin eta bere ustez beharrezkoa bada hala egitea, lehiaren arloan ustez izan daitezkeen arazoez behar bezala ikertzeko. Kasu horretan, prozedurari buruz ebatzi eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea inprimaki arrunta aurkezten den egunetik hasiko da zenbatzen.

### *2. Sekzioa. Prozeduraren instrukzioa eta ebazpena*

**57. artikulua. Lehen fasearen instrukzioa eta ebazpena.**

1. Jakinarazpena forma egokian jaso ostean, Ikerketa Zuzendaritzak espedientea egin eta txosten bat idatziko du, 10. artikuluan aipatzen diren balorazio-irizpideen arabera, eta ebazpen-proposamena ere idatziko du.

2. Ikerketa Zuzendaritzak idatzitako txostena eta ebazpen-proposamena oinarri hartuta, Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak lehen faseko ebazpena emango du, eta aukera hauek izango ditu horretan:

a) Kontzentrazioa baimentzea.

b) Baimena emateko, jakinarazleek berek proposatutako konpromiso jakin batzuk betetzea eskatzea.

c) Prozeduraren bigarren fasearekin ekitea erabakitzea, baldin eta iruditzen bazaio kontzentrazioak merkatu nazional osoko edo zati bateko lehia eraginkorra mantentzeari oztopoak jarriko dizkiola.

d) Kontzentrazioaren berri Europar Batzordera igortzea erabakitzea, enpresen arteko kontzentrazioei buruzko 2004ko urtarrilaren 20ko Kontseiluaren 139/2004 erregelamenduaren 22. artikuluan esaten denaz bat, eta kasuan kasuko jakinarazpena artxibatzea. Kasu horretan, igorpen horren berri emango zaio jakinarazleari, eta adieraziko zaio gaiaren inguruan erabakitzeko eskumena Europar Batzordeak duela, Europar Batasuneko araudiaz bat, eta, beraz, operazio hori ezingo dela baliatu 38. artikuluan aipatzen den administrazioaren isiltasun positiboaren onurez.

e) Jarduerak artxibatzea erabakitzea, lege honetan aurreikusitako kasuetan.

**58. artikulua. Bigarren fasearen instrukzioa eta ebazpena.**

1. Prozeduraren bigarren fasea hasitakoan, Ikerketa Zuzendaritzak kontzentrazioari buruzko ohar labur bat idatziko du, eta ohar horren isilpekotasun kontuekin zerikusia duten gaiak konpondu ostean,

jendaurrean jarriko da eta gaiak eragin liezaiekeen pertsona fisiko edo juridikoei jakinaraziko zaie, eta baita Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Kontseiluari ere, 10 eguneko epean alegazioak aurkez ditzaten.

Kontzentrazioak autonomia-erkidego jakin baten lurraldeari modu nabarmenean eragiten badio, Ikerketa Zuzendaritzak derrigorrezko txostena, loteslea izango ez dena, eskatuko dio gaiak eragiten dion autonomia-erkidego horri, eta gorago aipatutako ohar laburraz batera, aurkeztutako jakinarazpenaren kopia ere igorriko dio, isilpekotasun kontuekin zerikusia duten gaiak konpondu ostean, hogei eguneko epean txostena egin dezan.

2. Kontzentrazioaren ondorioz lehiarentzat sortuko diren ustezko oztopoak, gertakariak zehazteko agiri batean jasoko dira, Ikerketa Zuzendaritzak idatzia. Agiri horren berri interesdunei jakinaraziko zaie, 10 eguneko epean alegazioak egin ditzaten.

3. Jakinarazleek hala eskatuz gero, Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluan ikustaldia izango da.

4. Ikerketa Zuzendaritzak idatzitako behin betiko ebazpenaren proposamena jaso ostean, Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak azken erabakia hartuko du, ebazpen baten bidez, eta aukera hauek izango ditu:

a) Kontzentrazioa baimentzea.

b) Baimena emateko, jakinarazleek berek proposatutako konpromiso jakin batzuk edo baldintzak betetzea eskatzea.

c) Kontzentrazioa debekatzea.

d) Jarduerak artxibatzea erabakitzea, lege honetan aurreikusitako kasuetan.

5. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ebazpenak Ekonomia eta Ogasun Ministerioari jakinaraziko zaizkio, interesdunei jakinaraztearekin batera.

6. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, bigarren fasean hartutako ebazpenaren bidez, kontzentrazio bat debekatu edo kontzentrazioa aurrera eramateko konpromiso edo baldintza batzuk bete beharra eskatzen duen kasuetan, ebazpen horiek ez dira ez eraginkorrak ez betearaztekoak izango, eta ez dute administrazio-bidea amaituko, ondorengo kasuetan:

a) Ekonomia eta Ogasun Ministroak kontzentrazioaren gaia Ministroen Kontseiluan ez aurkeztea erabakitzen duen artean, edo lege honen 36. artikuluan hori egiteko jarritako legezko epea igaro artean.

b) Ekonomia eta Ogasun Ministroak kontzentrazioaren gaia Ministroen Kontseiluan aurkeztea erabakitzen duenean, Ministroen Kontseiluak Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ebazpena berresten duen kontzentrazioari buruzko akordio bat hartu arte, edo lege honen 36. artikuluan hori egiteko jarritako legezko epea igaro artean.

**59. artikulua. Konpromisoak aurkeztea.**

1. Kontzentrazio baten ondorioz lehia eraginkorra mantentzeko oztopoak sortzeko arriskua badago, alderdi jakinarazleek, beren ekimenez edo Lehiaren Batzorde Nazionalak eskatuta, arazo hori konpontzeko konpromisoak aurkezteko aukera izango dute.

2. Konpromisoak proposatzen diren kasuetan, prozeduraz ebazteko eta hori jakinarazteko epea 10 egunez luzatuko da lehen fasean, eta 15 egunez bigarrenean.

3. Alderdi jakinarazleek proposatutako konpromisoak interesdunei edo beste operadore batzuei jakinarazteko aukera egongo da, hain zuzen ere kontzentrazioaren ondorioz lehiaren ikuspegitik

sortutako arazoak zenbateraino konpontzen dituzten ikusteko eta merkatuetan zer nolako eragina izango duten aztertzeko.

**60. artikulua.- Ministroen Kontseiluak esku hartzea.**

1. Kontzentrazioari buruz hartutako erabakia Ministroen Kontseiluan aurkezteko aukera izango du Ekonomia eta Ogasun Ministroak, interes orokorreko arrazoiak direla-eta, baldin eta bigarren fasean, Lehiaren Batzorde Nazionalak:

a) Kontzentrazioa debekatzea erabaki badu.

b) Baimena emateko, jakinarazleek berek proposatutako konpromiso jakin batzuk betetzea eskatu badu.

2. Ekonomia eta Ogasun Ministroaren ebazpena Lehiaren Batzorde Nazionalari jakinaraziko zaio, horren berri interesdunei jakinarazteaz batera.

3. Ministroen Kontseiluak aukera hauek izango ditu:

a) Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ebazpena berrestea.

b) Kontzentrazioa baimentzea erabakitzea, baldintzak jarrita edo jarri gabe. Erabaki hori behar bezala arrazoituta egon beharko da, interes orokorra oinarri hartuta eta ez lehiaren defentsa, 10. artikuluan zehaztutakoaz bat. Erabakia hartu aurretik, Lehiaren Batzorde Nazionalari txostena eskatzeko aukera izango du.

4. 36. artikuluan aipatzen diren epeak igaro eta Ekonomia eta Ogasun Ministroak edo Ministroen Kontseiluak ez baldin badute erabakirik hartu, Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren bigarren faseko ebazpen espresua eraginkorra izango da, berehala betearaztekoa, eta administrazio-bidea amaituko du. Ondorengoa erabaki duela ulertu beharko da:

a) Kontzentrazioa baimentzeko, ebazpen horretan aurreikusten diren konpromiso edo baldintzak bete beharko direla.

b) Kontzentrazioa debekatzen duela, eta kasu horretan, Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak ondorengo aukerak izango ditu:

1. Kontzentrazioari ez ekiteko agintzea, kontzentrazioa oraindik gauzatu ez bada.

2. Beharrezko neurriak agintzea, lehia eraginkorra berriz ere indarrean sar dadin, eta neurri horien artean deskontzentrazioa ere sartuko da, kontzentrazioa dagoeneko gauzatua baldin bazegoen.

5. Ministroen Kontseiluaren erabakia Lehiaren Batzorde Nazionalari jakinaraziko zaio, alderdiei jakinarazteaz batera.

V. TITULUA

**Zehapen-araubidea**

**61. Artikulua. Arau-hausleak.**

1. Lege honetan arau-haustetzat jotako ekintzak edo ez-egiteak burutzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira arau-hausleak.

2. Lege hau aplikatzeari dagokionez, enpresa baten jarduera enpresa hori kontrolatzen duten enpresei edo pertsonei egozteko modukoa izango da, salbu eta lehen enpresa horren jokaera ekonomikoa ez badu erabakitzen azken horietakoren batek.

3. Enpresen elkarte, batasun edo talde bati isuna jarri eta ez badu isuna ordaintzeko kaudimenik, elkarte horrek elkartea osatzen duten kideei beharrezko zenbatekoa eskatu beharko die, isuna ordaintzeko modua izateko.

Elkarteari ez bazaio ekarpen hori egiten Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak horretarako zehaztutako epearen barruan, kasuan kasuko elkartearen gobernu-organoetan kideak dituzten enpresetako edozeini eskatu ahal izango zaio isuna ordaintzeko.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ordaindu behar diotena ordaintzeko aurreko paragrafoan zehaztutako moduan eskatu ostean, arau-haustea gertatu den merkatuan dihardduen elkarteko edozein kideri eskatu ahal izango dio saldoa ordaintzeko, hori egitea beharrezkoa bada isuna osorik ordainduko dela bermatzeko.

Dena den, bigarren eta hirugarren paragrafoetan aipatzen dena ordaintzeko ez zaie eskatuko arau-haustea egin duen elkarteko kide izanik ere, elkarte horren erabaki edo gomendioa bete ez dutela frogatzen duten enpresei, eta erabakiaren berri ez zutenei edo berri izanda ere erabaki horretatik aktiboki aldendu zirenei, gertakariak ikertzen hasi aurretik.

Enpresa bakoitzak isuna ordaintzea dela-eta izango duen finantza arloko erantzukizuna ez da izango aurreko ekitaldian guztira izan duen negozio-bolumenaren ehuneko 10ekoa baino handiagoa.

**62. artikulua. Arau-hausteak.**

1. Lege honetan zehazturik dauden arau-hausteak arinak, astunak edo oso astunak izango dira.

2. Hauek dira arau-hauste arinak:

a) Kontzentrazio ekonomikoari buruzko jakinarazpena 9.3.a) eta 9.5 artikuluetan aipatzen diren epeetatik kanpora aurkeztea Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari.

b) Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bere kabuz hala eskatu arren, kontzentrazio baten berri ez jakinaraztea, 9.5. artikuluan aurreikusitako moduan.

3. Hauek dira arau-hauste astunak:

a) Lehia askea egintza desleialen bidez faltsutzea, lege honen 3. artikuluan zehaztutako moduan.

b) Lege honetan aurreikusitakoaz bat kontrolpean zegoen kontzentrazio bat gauzatzea, horren berri Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari jakinarazi aurretik, edo kontzentrazioa baimentzen duen ebazpen espresua edo isilbidezkoa eman eta betearaztekoa izan aurretik, eta bertan behera uzteko agindua indarrik gabe uztea erabaki ez bada.

c) Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren lana oztopatzea, edozein bide erabiliz, informazio-errekerimendu, elkarrizketa edo ikuskapen baten esparruan, 39., 39 bis eta 40. artikuluetan hurrenez hurren ezarritako betebeharrak urratuz. Besteak beste, honako jokabide hauek oztopo dira Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren lanerako:

1. informazio-errekerimendu edo ikuskapen baten esparruan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak eskatutako liburu eta agiriak ez aurkeztea, edo modu ez osatuan, behar ez bezala edo era nahasgarrian aurkeztea.

2. Elkarrizketa batean ez agertzea, horri uko egitea edo Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak egindako galderak modu ez osoan, akatsekin edo modu engainagarrian ez agertzea, ez edo galderei erantzutea.

3. Lege honen 40.5.f) artikuluak xedatutakoaren esparruan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak egindako galderei ez erantzutea, edo erantzutea modu ez osoan, akatsekin edo modu engainagarrian.

4. Ikuskapen baten esparruan Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak jarritako zigiluak haustea.

4. Hauek dira arau-hauste oso astunak:

a) Lege honen 1. artikuluan eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. artikuluan tipifikatutako jokabideak garatzea.

b) Nagusitasunezko egoeraz abusatzea, lege honen 2. artikuluan eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 102. artikuluan tipifikatuta.

c) Lege hau aplikatzeko orduan emandako ebazpen, akordio edo konpromiso batean esaten dena ez betetzea edo urratzea, bai jokabide murriztaileen arloan zein kontzentrazioak kontrolatzearen arloan.

**63. artikulua. Zehapenak.**

1. Lege honetan xedatutakoa nahita edo utzikeriagatik urratzen duten eragile ekonomiko, enpresa, enpresen elkarte edo batasun nahiz taldeei, ondorengo zehapenak jartzeko aukera izango dute horretarako eskumena duten organoek:

a) Arau-hauste arinen kasuan, araua hautsi duen enpresak isuna jarri zaion ekitaldiaren aurrekoan guztira izan zuen mundu-mailako negozio-bolumen osoaren ehuneko 1era arteko isuna.

b) Arau-hauste astunen kasuan, araua hautsi duen enpresak isuna jarri zaion ekitaldiaren aurrekoan guztira izan zuen mundu-mailako negozio-bolumen osoaren ehuneko 5era arteko isuna.

c) Arau-hauste oso astunen kasuan, araua hautsi duen enpresak isuna jarri zaion ekitaldiaren aurrekoan guztira izan zuen mundu-mailako negozio-bolumen osoaren ehuneko 10era arteko isuna.

Enpresen elkarte, batasun eta taldeek guztira izandako negozio-bolumena zein izan den jakiteko, kide guztien munduko negozio-bolumen osoaren zein izan den hartuko da kontuan, salbu eta espediente berean enpresa elkartuak eta haien elkartea zehatzen direnean. Kasu horretan, enpresen elkarte, batasun edo taldeen negozio-bolumen osoa zehazteko, ez da kontatuko espediente berean zehatu diren enpresa elkartuen mundu-mailako negozio-bolumen osoa.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako isunaz gainera, arau-hauslea pertsona juridiko bat den kasuetan, legezko ordezkari bakoitzari edo akordio edo erabakian esku hartu duten zuzendaritza-organoetako kide bakoitzari 60.000 eurora arteko isuna ere jartzeko aukera egongo da.

Ez zaie isunik jarriko kide anitzeko administrazio-organoetakoak izanik ere bileretan parte hartu ez dutenei, edo kontra bozkatu dutenei edo beren botoa babestu dutenei.

3. 1. apartatuan aipatzen den negozio-bolumena zenbatekoa den zehazterik ez baldin badago, lege honetan aipatzen diren arau-hausteek ondorengo zehapenak izango dituzte:

a) Arau-hauste arinek 100.000 eurotik 500.000 eurora arteko isuna.

b) Arau-hauste astunek 500.001 eurotik 10 milioi eurora arteko isuna.

c) Arau-hauste oso astunek 10 milioi eurotik gorako isuna.

**64. artikulua. Isunen zenbatekoa zehazteko irizpideak.**

1. Isunen zenbatekoa beste batzuen artean ondorengo irizpideak kontuan izanda zehaztuko da:

a) Arau-hausteak eragiten dion merkatuaren neurria eta ezaugarriak.

b) Erantzulea den edo diren enpresen merkatu-kuota.

c) Arau-haustearen norainokoa.

d) Arau-haustearen iraupena.

e) Arau-hausteak zer nolako ondorioak izan dituen kontsumitzaile eta erabiltzaileen edo beste operadore ekonomiko batzuen eskubide eta bidezko interesetan.

f) Arau-haustea dela-eta bidegabeki zer nolako onurak eskuratu diren.

g) Erantzulea den enpresa bakoitzaren kasuan, zer nolako gertakari astungarriak edo aringarriak dauden

2. Isunaren zenbatekoa zehazteko orduan, ondorengo inguruabar astungarriak izango dira kontuan, beste batzuen artean:

a) Lege honetan jasotzen diren arau-hausteak behin baino gehiagotan egitea.

b) Arau-haustearen erantzule edo sustatzailea izatea.

c) Zilegi ez diren jokabideak inposatzeko edo bermatzeko neurriak hartzea.

d) Ikuskapenetan lankidetzarik ez eskaintzea edo oztopoak jartzea, alde batera utzita hori beste arau-hauste bat izan daitekeela lege honen 62. artikuluan jasotakoaz bat.

3. Isunaren zenbatekoa zehazteko orduan, ondorengo inguruabar aringarriak izango dira kontuan, beste batzuen artean:

a) Arau-haustea amaitzea eragingo duten jarduerak burutzea.

b) Debekatutako jokabideak benetan ez aplikatzea.

c) Egindako kaltea konpontzeko asmoa duten j burutzea.

Aringarri kualifikatutzat joko da kaltea benetan konpontzea ebazpena eman aurretik.

d) Lehiaren Batzorde Nazionalarekin modu aktiboan eta eraginkorrean lankidetzan aritzea, lege honen 65 eta 66. artikuluetan arautzen diren kasuetatik kanpo, hau da, isunaz salbuetsi edo isuna murrizteko egoeretatik kanpo.

**65. artikulua. Isun-ordainketa salbuestea.**

1. Aurreko artikuluetan ezarritakoa hala izanik ere, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak enpresa edo pertsona fisiko batek jarri dioten isunik ez ordaintzea erabaki ahal izango du, ondorengo kasuetan:

a) Enpresa edo pertsona fisiko hori bada lehena frogazko elementu jakin batzuk aurkezten, eta horiek, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren ustez, kartel bati buruzko ikuskapen bat 40. artikuluan zehaztutako moduan aurrera eramateko aukera eskaintzen badiote, baina baldin eta elementu horien berri emateko unean ez badago behar beste datu ikuskapenari ekiteko agintzeko, edo

b) Enpresa edo pertsona fisiko hori bada lehena frogazko elementu jakin batzuk aurkezten, eta horiek, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren ustez, kartel bati buruzko 1. artikuluko arau-hauste bat egiaztatzeko aukera eskaintzen badiote, baina baldin eta elementu horien berri emateko unean Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ez badu behar beste datu arau-haustea izan dela egiaztatzeko, eta enpresa edo pertsona fisikoren bat ordaindu beharretik salbuetsita utzi ez bada a) hizkian ezarritakoaren arabera

2. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak aurreko apartatuan aurreikusitako salbuespena onartzeko, eskaera aurkeztu duen enpresak edo, hala bada, pertsona fisikoak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

a) Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari erabateko lankidetza jarraitua eta arretatsua eskaintzea, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan, ikerketaren administrazio-prozedura osoak dirauen artean.

b) Ustezko arau-haustean parte hartzeari uztea, artikulu honetan aipatzen diren frogazko elementuak ematen dituen unetik, salbu eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari egokia iruditzen bazaio parte hartzen jarraitzea komeni dela, ikuskapena eraginkorragoa izan dadin.

c) Salbuesteko eskaerarekin zerikusia duen frogazko elementurik ez desegitea, eta beste hirugarren batzuei, alde batera utzita Europar Batzordea edo lehiaren arloko beste agintaritza batzuk, ez jakinaraztea, zuzenean edo zeharka, eskaera hau aurkezteko asmoa, edo eskaeraren edukia.

d) Beste enpresa batzuk arau-haustean parte hartzera behartzeko neurririk ez hartzea.

3. Enpresa bat isuna ordaintzetik salbuesten bada, horrek enpresaren legezko ordezkariei ere eragingo die, edo zuzendaritza-organoetako kide diren pertsonei ere bai, hain zuzen ere akordioan edo erabakian parte hartu dutenak, baldin eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari lankidetza eskaintzen badiote.

4. 1. apartatuan aurreikusitako salbuespenak barne hartuko du Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko debekua ere.

5. Isunaren ordainketatik salbuesteko eskaera aurkeztuko duen enpresak edo pertsona fisikoak postua gordetzen dion adierazle bat eskatu ahal izango du, eskatzaileari artikulu honetako 1. apartatua aplikatzeko beharrezkoak diren froga-elementuak aurkezteko denbora emateko.

**66. artikulua. Isunaren zenbatekoa murriztea.**

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak isunaren zenbatekoa murrizteko aukera izango du, aurreko artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren baldintzak bete gabe ere, ondorengoa egiten duten enpresa edo pertsona fisikoen kasuan:

a) ustezko arau-haustearen inguruko frogazko elementu jakin batzuk aurkezten dituztenei, baldin eta horiei esker ordura arte Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak zituenei balio gehigarri esanguratsua ematen bazaie.

b) aurreko artikuluaren 2. apartatuko a), b) eta c) hizkietan zehaztutako baldintzak betetzen dituztenei.

2. Isunaren zenbatekoa zenbateraino murriztu, ondorengo erregelaren arabera kalkulatuko da:

a) Aurreko apartatuan ezarritakoa betetzen duen lehenengo enpresak edo pertsona fisikoak ehuneko 30 eta 50 arteko murrizketa lortzeko aukera izango du.

b) Bigarren enpresak edo pertsona fisikoak ehuneko 20 eta 30 arteko murrizketa lortzeko aukera izango du.

c) Ondorengo enpresek edo pertsona fisikoek isunaren zenbatekoan ehuneko 20ra arteko murrizketa lortzeko aukera izango dute.

3. Enpresa edo pertsona fisiko batek emandako frogazko elementuei esker gertakari osagarri batzuk zehaztea baldin badago, eta horiek isunaren zenbatekoan zuzenean eragiten badute, egoera hori

kontuan izango du Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak enpresa edo pertsona fisiko horri dagokion isunaren zenbatekoa zehazterakoan.

4. Enpresa bati dagokion isunaren zenbatekoa murriztea erabakitzen bada, ehuneko berean murriztuko da akordio edo erabakian esku hartu duten enpresaren ordezkariei edo zuzendaritza-organoetako kide diren pertsonei zegokiena ere, baldin eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari lankidetza eskaini badiote.

5. Artikulu honetan aurreikusitako isunaren zenbatekoa murrizteak barne hartu ahalko du Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko debekua ere.

**67. artikulua. Hertsatzeko isunak.**

Zehapen-isunak jarri eta ordenamenduan aurreikusten diren derrigorrez betetzeko beste neurri batzuk hartzeko aukera izateaz batera, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak enpresei, elkarteei, horien batasunei edo taldeei eta, orokorrean, eragile ekonomikoei betetzeko errekerimendua egin ondoren, hertsatzeko isunak jarri ahal izango ditu, hau da, aurreko ekitaldian eguneko batez besteko mundu-mailako negozio-bolumen osoaren ehuneko 5era hertsatzeko isunak atzeratutako egun bakoitzeko, errekerimenduan finkatutako egunetik zenbatzen hasita, ondorengora behartzeko:

a) Jokabide jakin bat bertan behera uztera, lege honetan xedatutakoaz bat debekatutzat jo bada.

b) Kontzentrazioa lortzeko operazio bat desegitera, lege honetan xedatutakoaz bat debekatutzat jo bada.

c) Lehia murrizten duen jokabide batek eragindako ondorioak eraldatzera.

d) Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren ebazpenetan edo Ministroen Kontseiluen akordioetan jarritako konpromisoak edo baldintzak betetzera, lege honetan aurreikusitakoaz bat.

e) Lehiaren Batzorde Nazionalaren edo Ministroen Kontseiluaren ebazpen, errekerimendu edo erabaki batean agindutakoa betetzera.

f) 39. artikuluan ezartzen den laguntzeko betebeharra betetzera.

g) 39 bis artikuluko elkarrizketetara joateko betebeharra betetzera. Zehazki, hertsatzeko isuna ezarriko zaio Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ikerketa baten xedeari buruzko informazioa biltzeko elkarrizketetara deitutako pertsona fisikoak zerbitzuak ematen dizkion edo ordezkatzen duen erakundeari. Baldin eta erakundearekiko ordezkaritza- edo zerbitzu-harremana ez badago indarrean isun hertsatzailea aplikatzeko unean, isun hori ezarriko zaio elkarrizketarako deitutako pertsona fisikoari, eta egunean 5.000 eurora artekoa izango da.

h) Kautelazko neurriak betetzera

i) 40. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, ikuskapena ez oztopatzera eta eskatutako liburuak eta bestelako agiriak aurkeztera.

Ez da hertsatzeko isunik ezarriko, eta lehendik ezarritako hertsapen-isunen preskripzioa eta exijigarritasuna eten egingo da, beste estatu kide batzuetako lehiaren arloko agintaritzetan edo Europako Batzordean zehapen-prozedura izapidetzen den bitartean, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. edo 102. artikuluetan debekatutako arau-haustea diren gertakari berberei dagokienez.

**68. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.**

1. Arau-hauste oso astunak lau urteren buruan preskribatuko dira, astunak bi urteren buruan eta arinak urtebetera. Preskribatzeko epea arau-haustea egin den unetik hasiko da zenbatzen, edo arau-hauste jarraituen kasuan, horiek egiteari utzi zaionetik.

2. Arau-hauste oso astunengatik jarritako zehapenak lau urtera preskribatuko dira, arau-hauste astunengatik jarritakoak bi urtera, eta arau-hauste arinengatik jarritakoak urtebetera.

3. Preskripzioa eten egingo da administrazioak burututako edozein ekintzagatik, legeak dioena betetzea helburu duenean, edo interesdunek ebazpenak ziurtatu, bete edo betearazteko burututako ekintzengatik.

4. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren preskripzioa eten egingo da beste estatu kide batzuetako lehiaren arloko agintaritza nazionalen edo Europako Batzordearen aurreko zehapen-prozedura izapidetzen den bitartean, lege honetan edo Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. edo 102. artikuluetan debekatutako arau-haustea diren gertakari berberei dagokienez.

Europar Batasuneko beste estatu bateko lehiaren agintaritza nazionalak edo Europako Batzordeak ikerketa formalaren lehen neurria jakinarazten duenean etengo da preskripzioa, eta arau-haustean parte hartu duten subjektu guztientzat etengo da, haietako batek gutxienez etetea eragin duen egintzaren berri formala duenean, eta gainerako subjektuei inguruabar hori jakinarazi beharko zaie.

Preskripzioa etenda geratuko da ebazpen zehatzailea jurisdikzio-prozesu batean berrikusten den bitartean.

Zenbaki honetan xedatutakoa 67. artikuluan arautukako hertsapen-isunei ere aplikatuko zaie.

**69. artikulua. Zehapenen publizitatea.**

Lege hau aplikatzea dela-eta jarritako isunak, horien zenbatekoa, arau-hausleen izena eta egindako arau-haustea publikoak izango dira, erregelamendu bidez zehaztutako modu eta baldintzetan.

**70. artikulua. Ezarriko den araubidea eta organo eskudunak.**

1. 62. artikuluan aurreikusitako arau-hausteen kasuetan izan ezik (lege honen 1., 2. eta 3. artikuluei dagozkie), titulu honetan aurreikusitako isunak jartzeko prozedura Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta hori garatuko duen araudian ezarritakoa izango da.

2. Lehiaren Zuzendaritza izango da zehapen-prozedurarekin hasi eta instrukzioa egiteko eskumena izango duen organoa, eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseilua ebazteko eskumena izango duena.

3. Isunen bilketa, 18.1.e) artikuluan aipatutakoak barne, Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio borondatezko aldian, eta Tributu Administrazioko Estatu Agentziari betearazpen-aldian, uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuak onartutako Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorrean ezarritakoaren arabera.

## VI. TITULUA

## Lehiaren jokabide murriztaileek eragindako kalteen konpentsazioa

**71. artikulua. Lehiaren Zuzenbidearen arau-hausteengatiko erantzukizuna.**

1. Lehiaren Zuzenbidearen arau-hausteak egiten dituztenak eragindako kalteen eta galeren erantzuleak izango dira.

2. Titulu honen ondoreetarako:

a) Lehiaren Zuzenbidearen arau-haustetzat joko da Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. edo 102. artikuluen edo lege honen 1. edo 2. artikuluen arau-hauste oro.

b) Enpresa baten jarduera enpresa hori kontrolatzen duten enpresei edo pertsonei egozteko modukoa izango da, salbu eta azken horietakoren batek enpresa horren jokaera ekonomikoa erabaki ez badu.

**72. artikulua. Ordain osoa jasotzeko eskubidea.**

1. Lehiaren Zuzenbidearen arau-hauste batek eragindako galeraren bat pairatu duen edozein pertsona fisikok edo juridikok eskubidea izango du arau-hausleari erreklamazioa aurkezteko eta galeraren ordain osoa jasotzeko jurisdikzio zibil arruntaren aurrean.

2. Ordain osoak esan nahi du galera pairatu duen pertsona Lehiaren Zuzenbidearen arau-haustea egin izan ez balitz egongo zen egoerara ekartzea. Horrenbestez, sortutako kaltearengatiko eta lortu gabeko irabaziengatiko kalteordainerako eskubidea sartzen da ordain horren barruan, gehi interesen ordainketa.

3. Ordain osoa jasotzeak ez du berekin ekarriko gainkonpentsazio bat jasotzea zigor erako kalte-ordainen bitartez, kalte-ordain aniztunen bitartez nahiz bestelakoen bitartez.

**73. artikulua. Erantzukizun bateratu eta solidarioa.**

1. Lehiaren Zuzenbidearen aurkako baterako arau-haustea egin duten enpresek eta enpresen elkarte, batasun edo taldeek arau-hausteak eragindako kalte-galeren ordain osoa emateko erantzukizun solidarioa izango dute.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, eta ordain osoa jasotzeko eskubidea ezertan eragotzi gabe, arau-hauslea enpresa txiki edo ertain bat denean, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioan mikroenpresei, enpresa txikiei eta enpresa ertainei buruz emandako definizioari jarraituz, erantzulea izango da bere zuzeneko edo zeharkako erosleen aurrean honako kasu hauetan bakarrik:

a) enpresak bere merkatuan duen merkatu-kuota ehuneko bostekoa baino txikiagoa denean arau-hausteak irauten duen denbora guztian, eta

b) 1. apartatuan ezarritako erantzukizun solidarioaren araubidearen aplikazioak erremediorik gabe gutxitzen duenean haren bideragarritasun ekonomikoa, eta haren aktiboen balio osoaren galera eragiten duenean.

3. Egoera hauetan ez da aplikatuko 2. apartatuan ezarritako salbuespena:

a) Enpresak arau-haustea zuzendu duenean edo beste enpresa batzuk behartu dituenean arau-haustean parte hartzera, edo

b) enpresa lehenago ere errudun deklaratu denean Lehiaren Zuzenbidearen aurkako arau-hauste batengatik.

4. 1. apartatuaren salbuespen moduan, errukitasun-programa baten esparruan isuna ordaintzetik salbuetsita dauden subjektu onuradunek honako hauen aurrean izango dira erantzule solidarioak:

a) Beren erosleen edo zuzeneko edo zeharkako hornitzaileen aurrean, eta

b) kaltetutako beste alderdi batzuen aurrean, soilik Lehiaren Zuzenbidearen arau-hauste berean inplikatuta egon ziren gainerako enpresengandik ordain osoa jasotzerik ezin denean.

5. Kalte-ordain bat ordaindu duen arau-hausleak gainerako arau-hausleei erreklamatu ahalko die, eragindako galerarengatik dagokien erantzukizun erlatiboaren arabera zehaztuko den zenbateko batean.

Errukitasun-programa baten esparruan isuna ordaintzeko salbuespenaren onuraduna den arau-hauslearen ordainketaren zenbatekoak ez du gaindituko bere erosleei edo zuzeneko edo zeharkako hornitzaileei eragindako galeraren zenbatekoa. Galera arau-hausleen zuzeneko edo zeharkako erosleez nahiz hornitzaileez besteko pertsona bati edo enpresa bati eragiten zaienean, lehen aipatutako onuradunak beste arau-hausle batzuei egin beharreko ekarpenaren zenbatekoa galera horrengatik daukaten erantzukizun solidarioaren arabera zehaztuko da.

**74. artikulua. Kalteengatiko akzioak egiteko epea.**

1. Lehiaren Zuzenbidearen arau-hausteen ondorioz pairatutako kalte-galeren erantzukizuna eskatzeko akzioa bost urteko epean iraungiko da.

2. Epearen zenbaketa hasiko da Lehiaren Zuzenbidearen arau-haustea amaitu den unean eta demandatzaileak honako inguruabar hauek ezagutu dituenean edo arrazoiz ezagutu ahal izan dituenean:

a) Lehiaren Zuzenbidearen arau-haustea den jokabidea eta egitatea;

b) arau-hauste horrek eragindako galera; eta

c) arau-hauslearen nortasuna.

3. Epea eten egingo da lehiaren agintaritzaren batek ikerketa bat edo zehapen-prozedura bat abiatzen badu kalteengatiko akzioarekin lotutako Lehiaren Zuzenbidearen arau-hauste batengatik. Etetea amaituko da lehiaren agintaritzak hartutako ebazpena irmoa denetik urtebete iragan denean, edo prozedura beste edozein modutan amaitutzat ematen denean.

4. Halaber, epea eten egingo da eragindako kalte-galeren erreklamazioari buruzko gatazken konponbide ez-judizialeko edozein prozedura hasten denean. Etetea, halere, soilik aplikatuko da gatazkaren konponbide ez-judizialean sartuta dauden edo ordezkatuta dauden alderdiei dagokienez.

**75. artikulua. Lehiaren agintaritzen edo auzitegi eskudunen ebazpenen ondorioa.**

1. Lehiaren Zuzenbidearen arau-hauste baten egiaztapena, Espainiako lehiaren agintaritza baten edo organo jurisdikzional baten ebazpen irmo baten bidez egina, eztabaidaezintzat hartuko da Espainiako organo jurisdikzional baten aurrean aurkeztutako kalteengatiko akzio baten ondorioetarako.

2. Lehiaren arloko arau-hausteen ondoriozko kalteak direla-eta akzioak baliatzen diren-eta kalte-galerak eskatzen diren kasuetan, joko da, kontrakoa frogatzen ez den bitartean, Lehiaren Zuzenbidearen arau-hauste bat egon dela beste edozein estatu kideren lehiaren agintaritzak edo organo jurisdikzionalak hura ebazpen irmo batez deklaratu duenean; hori, halere, ez da eragozpena izango egitate berriak alegatu eta frogatu ahal izateko, jatorrizko prozeduran haien berri izan ez baldin bada.

3. Artikulu hau ulertuko da ezertan eragotzi gabe auzitegiek dauzkaten eskubide eta betebeharrak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 267. artikuluarekin bat etorriz.

**76. artikulua. Kalte-galeren zenbaketa.**

1. Lehiaren Zuzenbidearen arau-hauste batengatik pairatutako kalte-galerei buruzko frogaren zama alderdi demandatzaileari egokituko zaio.

2. Baldin eta egiaztatzen bada demandatzaileak kalte-galerak pairatu zituela, baina ezinezko edo zailegi gertatzen bada haiek zehaztasunez zenbatestea eskura dauden frogetan oinarrituta, auzitegiek kalteen erreklamazioaren zenbatekoa kalkulatzeko ahalmena izango dute.

3. Kartel gisa kalifikatutako arau-hausteek kalte-galerak sortzen dituztela joko da kontrakoa frogatzen ez den bitartean.

4. Lehiaren Zuzenbidearen arau-hausteengatiko kalte-galeren erreklamazioei buruzko prozeduretan, lehiaren arloko Espainiako agintaritzek informatu ahalko dute arau-hausleek arau-hausteen ondorioz kaltetuta atera direnei ordaindu beharreko kalte-ordainen zenbaketari buruzko irizpideen gainean, auzitegi eskudunak horretarako errekerimendua egiten dienean

**77. artikulua. Kalteengatiko ordaina jasotzeko eskubideari buruzko konponbide ez-judizialen ondorioak.**

1. Akordio ez-judizial baten alderdi den kaltetutako pertsonaren kalte-galeren ordaina jasotzeko eskubidea gutxitu egingo da arau-hausleak —zeinarekin akordioa erdietsi baitu— lehiaren zuzenbidearen arau-hausteak eragin zion galeran duen proportzioaren arabera.

2. Arau-hausle batzuekin akordio ez-judizialik erdietsi ez bada, arau-hausle horiek ezin izango diote akordioaren alderdia izan den arau-hausleari eskatu kalteordainaren gainerakoarengatiko ekarpenik.

3. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, akordio ez-judizial bat erdietsi ez duten baterako arau-hausleek kalte-ordainaren gainerakoa ordaintzerik ez dutenean, kaltetutako pertsonak kalte-ordainaren gainerakoa erreklamatu ahalko dio akordioa norekin egin zuen hari, kontrakoa itundu ez badu.

4. Baterako arau-hausle batek beste edozein baterako arau-hauslerengandik, Lehiaren Zuzenbidearen arau-hausteak eragindako kalteari dagokion erantzukizun erlatiboaren arabera, berreskura dezakeen ekarpenaren zenbatekoa zehazterakoan, auzitegiek behar bezala hartu beharko dituzte kontuan kasuko baterako arau-hausleak parte hartu dueneko aurreko akordio ez-judizial baten esparruan ordaindutako kalte-galerak.

**78. artikulua. Gainkostuak eta ordain osoa jasotzeko eskubidea.**

1. Titulu honetan aipatutako ordaina jasotzeko eskubidea kaltetuak egiazki jasandako gainkostuari buruzkoa baino ez da izango, hain zuzen ere, jasanarazi ez dena eta kalte bat eragin diona.

Katearen edozein mailatan sortutako kaltearen ordaina ezingo da inolaz ere izan maila horretan izandako gainkostuaren galera baino handiagoa.

Ordain osoa jasotzeko eskubideak berekin ekarriko du, halaber, kaltetuak erreklamatzeko eta lortu gabeko irabaziengatiko kalte-ordain bat jasotzeko eskubidea, gainkostuak guztiz edo partzialki jasanaraztearen ondorioz.

2. Auzitegiek ahalmena izango dute zuzenbidearen arabera jasanarazitako gainkostuaren zatia kalkulatzeko.

3. Demandatuak bere alde aipatu ahalko du demandatzaileak Lehiaren Zuzenbidearen arau-haustearen ondoriozko gainkostu osoa edo haren zati bat jasanarazi izana.

Gainkostua jasanarazi izanari buruzko probaren zama demandatuari egokituko zaio, eta horrek eskatu ahalko du, arrazoizkoa den neurrian, demandatzailearen edo hirugarrenen esku dauden frogak erakusteko.

**79. artikulua. Gainkostuak eta horien jasanaraztea izanaren froga.**

1. Kalteengatiko akzio bat aurrera eramaterakoan erreklamazio bat egotea edo kalteordainaren zenbatekoa zehaztea gainkostu bat demandatzaileari jasanarazi izanaren mende edo hura zenbatean jasanarazi zenaren mende dagoenean, kontuan hartuta prezio-igoerak hornikuntza-katearen geroko puntuetan jasanarazteko merkataritza-jardunbidea, jasanarazte hori existitzeari eta haren zenbatekoari buruzko frogaren zama alderdi demandatzaileari egokituko zaio, eta horrek, arrazoizkoa den neurrian, demandatuaren edo hirugarrenen esku dauden probak erakusteko eskatu ahalko du.

2. Zeharkako erosleak gainkostua jasanarazi izana frogatu duela joko da, honako hauek frogatzen dituenean:

a) Demandatuak Lehiaren Zuzenbidearen arau-hauste bat egin du;

b) lehiaren Zuzenbidearen arau-hausteak ondorio gisa gainkostu bat ekarri zuen demandatuaren zuzeneko eroslearentzat; eta

c) zeharkako erosleak Lehiaren Zuzenbidearen arau-haustearen xede ziren ondasun eta zerbitzuak eskuratu zituen, edo haietatik eratorritako ondasun edo zerbitzuak edo haiek biltzen zituztenak eskuratu zituen.

Presuntzioa eraginik gabe geratuko da baldin eta alde demandatuak frogatzen badu gainkostuak ez zitzaizkiola jasanarazi, ez osorik, ez zati batean, zeharkako erosleari.

**80. artikulua. Hornikuntza-kateko maila desberdinetan kokatutako demandatzaileek baliatutako kalteengatiko akzioak.**

1. Hornikuntza-kateko maila desberdinetako demandatzaileek baliatutako kalteengatiko akzioek arau-hauslearen erantzukizun anitza edo erantzukizunik eza ekar dezaten saihesteko, Lehiaren Zuzenbidearen arau-hauste baten ondoriozko kalte-galerengatiko erreklamazio batez arduratzen diren auzitegiek, aurreko artikuluetan ezarritako gainkostuak jasanarazteari buruzko frogaren zamari buruzko arauak betetzen diren ebaluatzerakoan, aukera izango dute, Europar Batasuneko zuzenbidearen esparruan edo nazioko zuzenbidearen esparruan baliagarri dauden bitartekoak erabiliz, honako elementu hauek behar bezala aintzat hartzeko:

a) Lehiaren Zuzenbidearen arau-hauste berarekin lotuta dauden baina hornikuntza-katearen beste maila batzuetan kokatutako demandatzaileek aurkeztutako kalteengatiko akzioak;

b) aurreko letrak aipatzen dituen kalteengatiko akzioetatik eratorriko ebazpenak;

c) Lehiaren Zuzenbidearen aplikazio publikotik eratorriko jabari publikoko bidezko informazioa.

2. Artikulu hau ulertuko da ezertan eragotzi gabe nazioko organo jurisdikzionalek dauzkaten eskubide eta betebeharrak, 1215/2012 (EB) Erregelamenduaren 30. artikuluari jarraituz.

**81. artikulua. Gatazken konponbide ez-judizialak duen etete-eragina.**

Lehiaren Zuzenbidearen arau-hausteen ondoriozko kalteengatiko akzio batez arduratzen diren auzitegiek prozedura eten ahalko dute gehienez ere bi urtez, baldin eta prozedurako alderdiak saiatzen ari badira auzi horrekin lotutako gatazkari konponbide ez-judizial bat ematen.

**Lehenengo xedapen gehigarria. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa eta Merkataritza-arloko epaitegiak.**

Botere Judizialari buruzko 6/1985 Lege Organikoaren 86 ter.2 f) hizkian xedatutakoaz bat, merkataritza-arloko epaitegiek aztertuko dituzte zibil arloko auzien jurisdikzioko kontu guztiak, lege honen 1. eta 2. artikuluak eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. eta 102. artikuluak aplikatzeko prozedurei dagokienez.

2. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak 18.1 g) artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako agintaritza errekeritzaile gisa jarduten duenean, auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira, eta Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak arautuko ditu, honako hauei dagokienez:

a) gertakariak zehazteko agirien legezkotasuna, debekatutako jokabideak daudela edo isun edo isun hertsagarriak ezarri direla egiaztatzen duten ebazpenak, eta 101. eta 102. artikuluen aplikazioari buruzko beste edozein erabaki, egintza edo agiri, edo isun edo isun hertsagarriak ezartzen dituzten Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 101. eta 102. artikuluak aplikatuz emandako ebazpen irmoak, eta

b) errekeritutako agintaritza estatu kidean betearaztea ahalbidetzen duen tresna uniformearen legezkotasuna.

3. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak errekeritutako agintaritza gisa jarduten duenean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira, eta Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoak arautuko ditu Espainian hartutako betearazpen-neurriei buruzko auziak edo Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak egindako jakinarazpen baten baliozkotasunari buruzkoak.

**Bigarren xedapen gehigarria. Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea aldatzea.**

Bat. Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean 15 bis artikulua sartu da, eta ondorengoa dio:

***«15 bis artikulua. Lehiaren Defentsarako prozesuetan esku hartzea.***

*1. Europar Batzordeak, Lehiaren Batzorde Nazionalak eta autonomia-erkidegoetan beren eskumenen arloan lehiaren arloko eskumenak dituzten organoek, prozesuko alderdi izan gabe ere, esku hartzeko aukera izango dute, beren kabuz edo organo judizial batek eskatuta, hain zuzen ere Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluak edo Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. eta 2. artikuluak ezartzeari buruzko informazioa emanda edo idatzizko oharrak aurkeztuta. Kasuan kasuko organo judizialak baimena emanez gero, ahozko oharrak egiteko aukera ere izango dute. Horretarako, organo judizial eskudunari dena delako gaiari buruzko beharrezko dokumentu guztiak bidaltzeko edo bidalarazteko eskatuko diote, gaiaren balorazioa egiteko modua izateko.*

*Informazioa emateko eskatzen denean, horren barruan ez dira sartuko Lehiaren Defentsarako Legearen 65 eta 66. artikuluetan aurreikusitako isunetatik salbuesteko edo isuna murrizteko inguruabarrak direla eta eskuratutako datu edo dokumentuak.*

*2. Europar Batzordeak, Lehiaren Batzorde Nazionalak eta autonomia-erkidegoetan beren eskumenen arloan lehiaren arloko eskumenak dituzten organoek aurreko zenbakian aurreikusten diren informazioa edo oharrak aurkezteari dagokionez, lege honen 433. artikuluan aipatzen den epaiketa izan baino hamar egun lehenago aurkeztu beharko dituzte, edo aurkeztutako errekurtsoari aurka egin edo inpugnatzeko epearen barruan.»*

Bi. Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 212. artikulua aldatu da, eta beste zenbaki bat erantsi zaio, 3.a izango dena; honela dio:

*«3. Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluak eta Lehiaren Defentsarako Legearen 1. eta 2. artikuluak ezartzeari buruzko prozedurak direla eta emandako epaiak Lehiaren Batzorde Nazionalari jakinaraziko dizkio idazkari judizialak.»*

Hiru. Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 249. artikulua aldatu da, eta beste tarteki bat erantsi zaio, 4.a izango dena; honela dio:

*«4. Lehia desleial, lehiaren defentsa (Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluak edo Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. eta 2. artikuluak ezartzearen ondorioz), jabego industrial eta publizitatearen arloan aurkeztutako demandak, baldin eta horiek ez badira soilik kopuru jakin batzuk eskatzera mugatzen; izan ere, hala bada, dagokien prozeduraren arabera izapidetuko dira, eskatzen den kopurua zein den kontuan izanda. Dena den, lege honen 250. artikuluaren 1. apartatuaren 12. puntuan xedatutakoa bete beharko da, publizitatearen arloan kontsumitzaile eta erabiltzaileek dituzten interes kolektiboak eta interes zehaztugabeak defendatzearen aldeko bukarazte-akzioa gauzatzea denean kontua.»*

Lau. Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 404. artikulua aldatu da, eta beste paragrafo bat erantsi zaio; honela dio:

*«Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluak edo Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. eta 2. artikuluak ezartzekoak izango diren prozesuetan, idazkari judizialak demanda onartu duen autoaren berri eman beharko dio Lehiaren Batzorde Nazionalari, aurreko paragrafoan zehaztutako epean.»*

Bost. Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean 434. artikulua aldatu da, eta beste zenbaki bat erantsi zaio, 3.a izango dena; honela dio:

*«3. Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluak edo Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. eta 2. artikuluak ezartzeari buruzko prozeduretan, epaia emateko epea bertan behera uzteko aukera egongo da, auzitegiak jakiten badu administrazio-espediente bat badela horretaz Europar Batzordean, Lehiaren Batzorde Nazionalean edo autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten organoetan, eta beharrezkoa bada, epaia emateko, administrazio-organoaren iritziaren berri izatea. Epearen etete hori erabakitzeko arrazoiak eman beharko dira, aldez aurretik alderdiek diotena entzun eta gero, eta administrazio-organoari jakinaraziko zaio. Era berean, administrazio-organoak bere ebazpena auzitegira igorriko du.*

*Prozesua etengo duen autoaren aurka berraztertzeko errekurtsoa baino ezin izango da aurkeztu.»*

Sei. Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean 461. artikulua aldatu da, eta beste zenbaki bat erantsi zaio, 5.a izango dena; honela dio:

*«5. Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluak edo Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. eta 2. artikuluak ezartzekoak izango diren prozesuetan, idazkari judizialak gora jotzeko errekurtsoa aurkezten duen idazkiaren berri eman beharko dio Lehiaren Batzorde Nazionalari.»*

Zazpi. Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean 465. artikulua aldatu da, eta beste zenbaki bat erantsi zaio, 5.a izango dena; honela dio:

*«5. Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluak edo Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. eta 2. artikuluak ezartzeari buruzko prozeduretan, epaia emateko epea bertan behera uzteko aukera egongo da, auzitegiak jakiten badu administrazio-espediente bat badela horretaz Europar Batzordean, Lehiaren Batzorde Nazionalean edo autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten organoetan, eta beharrezkoa bada, epaia emateko, administrazio-organoaren iritziaren berri izatea. Epearen etete hori erabakitzeko arrazoiak eman beharko dira, aldez aurretik alderdiek diotena entzun eta gero, eta administrazio-*

*organoari jakinaraziko zaio. Era berean, administrazio-organoak bere ebazpena auzitegira igorriko du.*

*Prozesua etengo duen autoaren aurka berraztertzeko errekurtsoa baino ezin izango da aurkeztu.»*

**Hirugarren xedapen gehigarria. Lehiaren Batzorde Nazionalaren komunikazioak.**

Lehiaren Batzorde Nazionalak komunikazioak argitaratzeko aukera izango du, lege hau ezartzeko orduan bere jarduera bideratzen duten printzipioen berri emateko. Zehazki esanda, lege honen 1. artikulutik 3.era artekoei buruzko komunikazioak argitaratzeko, Lehiaren Defentsarako Kontseiluaren iritzia entzun beharko da.

**Laugarren xedapen gehigarria. Definizioak.**

1. Lege honetan aurreikusitakoetarako, ondorengoa izango da enpresa: jarduera ekonomiko bat burutzen duen edozein pertsona edo erakunde, erakunde horren estatutu juridikoa eta finantzatzeko modua dena delakoa izanik ere.

2. Lege honetan xedatutakoetarako, kartela izango da bi lehiakide edo gehiagoren arteko akordioa edo hitzartutako jardunbidea, zeinaren helburua baita merkatuan duten lehia-jokabidea koordinatzea edo lehiaren parametroetan eragitea, honako hauen moduko jokabideen bitartez, besteak beste: erosketa- edo salmenta-prezioak edo bestelako merkataritza-baldintzak finkatu edo koordinatzea, baita jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideei dagokienez ere; ekoizpen- edo salmenta-kuotak esleitzea; merkatuak eta bezeroak banatzea, horren barne direla lizitazioetako kolusioak; inportazio edo esportazioetako murriztea edo lehiaren kontrako neurriak erabiltzea beste lehiakide batzuen aurka.

3. Lege honetako VI. tituluan xedatutakoaren ondorioetarako, ondoren azaltzen den bezala ulertuko dira termino hauek:

1) «kalteengatiko akzioa»: nazioko zuzenbidearen araberako akzio oro, zeinaren bidez ustez galerak izan dituen alderdi batek edo ustez galerak izan dituen edo dituzten alderdi bat edo batzuk ordezkatzen dituen pertsona batek (Europar Batasuneko edo nazioko zuzenbideak ahalmen hori aurreikusten dutenean), edo ustez galerak izan dituen alderdiaren eskubideetan subrogatu den pertsona fisiko edo juridiko batek (akzioa eskuratu duen pertsona barne) erreklamazio bat aurkezten baitu organo jurisdikzional nazional batean kalte-galeren ordaina jasotzearren;

2) «errukitasun-programa»: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. artikuluaren aplikazioari buruzko programa oro edo legedi nazionaleko antzeko xedapena, zeinaren bitartez kartel sekretu batean parte hartzen duen batek, inplikatutako gainerako enpresak zein diren ere, lankidetzan jarduten baitu lehiaren agintaritzaren ikerketan, boluntarioki deklarazioak emanez kartelaren inguruan dakienari buruz eta hartan betetzen duen eginkizunari buruz; eta horren truke, prozedurari buruzko erabaki edo largespen baten bidez, kartelean parte hartzeagatiko isun ororen ordainketatik salbuetsita gera daiteke edo isuna murriz dakioke;

3) «errukitasun-programa baten esparruko deklarazioa»: ahozko zein idatzizko deklarazio oro, enpresa batek edo pertsona fisiko batek, edo haien izenean, lehiaren agintaritza bati boluntarioki egina, edo horri buruzko dokumentazioa, zeinean, enpresa horrek edo pertsona fisiko horrek kartel bati buruz dituen ezagutzak eta hartan betetako eginkizuna deskribatzen baitira, betiere berariaz landu bada agintaritzari aurkezteko, errukitasun-programa baten esparruan isunen ordainketatik salbuesteko edo isunen ordainketa murrizteko; halere, definizio horrek ez du aurretik zegoen informaziorik jasoko;

4) «aurretik zegoen informazioa»: dauden frogak, lehiaren agintaritza baten prozedura zein den ere, informazio hori lehiaren agintaritza baten espedientean jasota egon nahiz ez egon;

5) «transakzio eskabidea»: enpresa batek, edo bere izenean, lehiaren agintaritza bati boluntarioki egindako deklarazio oro, zeinean aitortzen baitu Lehiaren Zuzenbidearen arau-hauste batean izandako parte-hartzea eta erantzukizuna, edo parte-hartze edo erantzukizun hori eztabaidatzeari uko egiten diola; betiere deklarazioak berariaz landua izan beharko du, lehiaren agintaritzak prozedura sinplifikatu edo azeleratu bat aplikatu ahal dezan;

6) «gainkostua»: egiazki ordaindutako prezioaren eta Lehiaren Zuzenbidearen arau-hauste bat egin izan ez balitz nagusituko zen prezioaren artean dagoen aldea:

7) «zuzeneko eroslea»: pertsona fisiko edo juridiko bat, arau-hausle bati Lehiaren Zuzenbidearen arau-hauste baten xede izan ziren produktu edo zerbitzuak zuzenean erosi dizkiona;

8) «zeharkako eroslea»: pertsona fisiko edo juridiko bat, Lehiaren Zuzenbidearen arau-hauste baten xede izan ziren produktu edo zerbitzuak, edo haiek biltzen dituzten nahiz haietatik eratortzen diren produktu edo zerbitzuak arau-hauslearen zuzeneko edo geroko eroslearengandik eskuratu dituena, eta ez arau-hausleengandik.

**Bosgarren xedapen gehigarria. Beste arau batzuetan lehiaren arloko organo nazionalei egiten zaizkien erreferentziak.**

1. Lehiaren Batzorde Nazionala izango da Lehiaren Agintaritza Nazionala, Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluetan lehiari buruz aurreikusitako arauak aplikatzeari buruzko 2002ko abenduaren 16ko Kontseiluaren (EE) 1/2003 Erregelamenduan jasotzen direnen ondorioetarako.

2. Indarrean dagoen legerian Lehiaren Defentsarako Auzitegiari eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuari egindako erreferentziak Lehiaren Batzorde Nazionalari buruzkoak direla ulertu beharko da.

3. Dena den, Lehia Defendatzeko Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko Eskumenak Koordinatzeari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 legean, Lehiaren Defentsarako Auzitegiari eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuari egindako erreferentziak, hurrenez hurren, Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluari eta Ikerketa Zuzendaritzari egindakoak direla ulertu beharko da. Gorago esandakoa hala izanik ere, Lehiaren Defentsarako Kontseiluaren lehendakaria Lehiaren Batzorde Nazionalaren lehendakaria izango da.

**Seigarren xedapen gehigarria. Lehiaren Defentsarako Auzitegia eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzua iraungitzea.**

1. Iraungi egin dira Lehiaren Defentsarako Auzitegia zen erakunde autonomoa eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzua.

2. Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren baliabide materialak Lehiaren Batzorde Nazionalera eskualdatuko dira, eta horrek beste bion titularitatekoak diren eskubide eta betebeharrak eskuratuko ditu, ahalik eta baliabide gehien aurreztea lortzeko.

3. Lege hau indarrean sartzean beren zerbitzuak Lehiaren Defentsarako Auzitegian eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuan burutzen dituzten funtzionarioak eta gainerako langileak Lehiaren Batzorde Nazionalaren baitako langile bihurtuko dira.

**Zazpigarren xedapen gehigarria. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea aldatzea.**

Bat. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.6. artikulua beste modu batean idatzi da; honela dio orain:

*«6. Etxebizitzetara eta barrura sartzeko titularraren baimena behar den gainerako lekuetara sartzeko baimenez ere administrazioarekiko auzien epaitegiak arduratuko dira, baldin eta hori egitea beharrezkoa bada administrazio publikoaren egintzak derrigorrez betearazteko.*

*Era berean, administrazioarekiko auzien epaitegien ardura izango da osasun arloko agintaritzek osasun publikoarentzat premiazkotzat eta beharrezkotzat jotako neurriak baimentzea edo berrestea, baldin eta neurri horien ondorioz askatasuna edo oinarrizko beste eskubideren bat kendu edo mugatu egiten bada.*

*Gainera, administrazioarekiko auzien epaitegien ardura izango da Lehiaren Batzorde Nazionalak etxebizitza, lokal, lursail edo garraio-bideren bat ikuskatzea erabaki badu, horretarako baimena ematea, baldin eta dena delako lekuan sartu eta hori ikuskatzeko titularraren baimena eskatuta, titularrak uko egiten badio horri edo uko egiteko arriskua badago.»*

Bi. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10,1. artikulua beste modu batean idatzi da; honela dio orain:

***«10. artikulua. Justizia Auzitegi Nagusietako administrazioarekiko auzien salen eskumenak.***

*1. Justizia Auzitegi Nagusietako administrazioarekiko auzien salek ondorengo gaien inguruan aurkeztuko diren errekurtsoak aztertuko dituzte, auzialdi bakarrean:*

*a) Toki-erakundeen eta autonomia-erkidegoetako administrazioen egintzak, horiez ebaztea ez baldin badago Administrazioarekiko Auzien Epaitegien esku utzita.*

*b) Autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek emandako xedapen orokorrak.*

*c) Autonomia-erkidegoetako legebiltzarren eta erakunde autonomikoetan Kontu Epaitegiaren eta Herri Defendatzailearen baliokideak diren gobernu-organoen egintza eta xedapenak, hain zuzen ere langileen, administrazioaren eta ondarearen kudeaketaren arlokoak direnean.*

*d) Eskualdeetako eta tokiko Auzitegi Ekonomiko Administratiboen egintzak eta ebazpenak, bide ekonomiko administratiboa amaitzen dutenean.*

*e) Eskualdatutako tributuen arloan Auzitegi Ekonomiko Administratibo Zentralak emandako ebazpenak.*

*f) Probintzietako eta autonomia-erkidegoetako hauteskunde-batzordeen egintza eta xedapenak, eta hautetsiak izendatzearen eta toki-korporazioetako lehendakariak hautatu eta izendatzearen inguruan hauteskunde-batzordeek hartutako erabakien aurka jarritako hauteskunde-auzietako errekurtsoak, hauteskundeen legerian esandakoaz bat.*

*g) Administrazio publikoen arteko hitzarmenak, horien eskumenak kasuan kasuko autonomia-erkidegoaren barruan gauzatzen direnean.*

*h) Biltzeko Eskubidea arautzen duen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoan aurreikusitako bilerak debekatzea edo horiek aldatzeko proposamena.*

*i) Estatuko administrazio orokorreko organoen egintzak eta ebazpenak, organo horien eskumena estatuko lurralde osokoa bada eta organikoki ministroa edo estatu idazkaria baino beheragokoa, eta arloa, berriz, langile, jabego berezi eta derrigorrezko desjabetzeak.*

*j) Autonomia-erkidegoetan Lehiaren Defentsari buruzko Legea ezartzeko eskumena duten organoen egintzak eta ebazpenak.*

*k) Jurisdikzio honen beste organo batzuen esku berariaz utzi ez diren gainontzeko administrazio-jarduera guztiak.»*

Hiru. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen laugarren xedapen gehigarriko 3. apartatua aldatu egin da; honela geratu da:

*«3. Lehiaren Batzorde Nazionalaren lehendakariaren eta Kontseiluaren ebazpenak eta egintzak, zuzenean eta instantzia bakarrean, Auzitegi Nazionaleko administrazioarekiko auzien salan.»*

**Zortzigarren xedapen gehigarria. Lehiaren Batzorde Nazionalari eta bertako zuzendaritza-organoei buruzko aipamenak.**

Lege honetan Lehiaren Batzorde Nazionalari eta bertako zuzendaritza-organoei buruz egiten diren erreferentziak, hain zuzen ere eginkizun, administrazio-ahalmen eta prozedurei buruzkoak, autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten instrukzio- eta ebazpen-organoei buruzkoak ere badirela ulertuko da, erreferentzia horiek lege honen 13. artikuluan aurreikusitako eskumenen ingurukoak direnean.

**Bederatzigarren xedapen gehigarria. Lehiaren Batzorde Nazionalarentzako laguntza juridikoa.**

Lehiaren Batzorde Nazionalarentzako laguntza juridikoa, hau da, aholkularitza ematea, ordezkatzea eta epaiketetan defendatzea, Estatuarentzako eta Erakunde Publikoentzako Laguntza Juridikoa arautzen duen azaroaren 27ko 52/1997 Legean esaten denaz bat burutuko da.

**Hamargarren xedapen gehigarria. Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legea aldatzea.**

Bat. Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 5. artikuluko Bat.3 aldatu egin da; honela geratu da:

*«3. Estatuko administrazio orokorraren eta autonomia-erkidegoen arteko partaidetzarako eta lankidetzarako organoa denez, Lehiaren Defentsarako Kontseiluak eginkizun hauek izango ditu:*

*a) Herri-administrazioek lehia babeste aldera darabilten politikaren jarraipena egitea, aldian-aldian.*

*b) Informazio-trukaketa sustatzea eta, Lehiaren Defentsarako arauak aplikatzeko orduan administrazioek zein irizpide erabili dituzten argitze aldera, horretarako azterlanak egitea eta argitaratzea sustatzea, eta, beharrezkoa bada, irizpide horien berdintasun-beharra sustatzea.*

*c) Lehia babestearen arloan, autonomia-erkidegoen exekuzio-eskumenpean diren gaiak ukitzen dituzten xedapen-egitasmo orokorrei buruzko txostenak egitea.*

*d) Jarraibideak idaztea, lege honen 1. artikuluaren 2. apartatua nola interpretatu behar den azaltzeko.»*

Bi. Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 5. artikuluko Bi. b) hizkia aldatu egin da; honela geratu da:

*«b) Lehiaren Batzorde Nazionalak, beste alde batetik, jaso dituen salaketa guztiak eta ofizioz egindako jarduera guztiak ohar labur batean bildu, eta autonomia-erkidegoetako organoetara bidali behar ditu, baldin eta tartean arau-hausteen arrazoizko zantzurik badago. Halakoetan, oinarrian dagoen jokabideak dena delako autonomia-erkidegoarekin zerikusia izan behar du.»*

Hiru. Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 5. artikuluaren laugarren apartatua aldatu egin da; honela geratu da:

*«Lehiaren Batzorde Nazionalak, bereak diren eginkizunak aurrera eramaterakoan, autonomia-erkidegoko organoari derrigorrezko txosten ez loteslea igortzeko eskatuko dio, horretarako hogei eguneko epea emanda, hain zuzen ere Lehiaren Defentsarako Legearen 1, 2 eta 3. artikuluetan edo Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81 eta 82. artikuluetan aurreikusitako jokaerekin zerikusia izango duena, baldin eta jokabide horrek autonomia-erkidegoa baino handiagoko eremu bati edo merkatu nazionalari eraginda ere, kasuan kasuko autonomia-erkidegoan eragin berezia badauka.*

*Horretarako, Lehiaren Batzorde Nazionalak kasuan kasuko autonomia-erkidegoko organo autonomikoari gertakariak zehazteko agiriaren kopia igorriko dio, eta hala denean, salaketaren eta espedientean agertzen diren agirien eta egindako frogen kopiak, eta gertakariak zehazteko agirian interesdun gisa ageri direnei horren berri jakinaraziko zaie.*

*Lehiaren Batzorde Nazionalak kasuan kasuko autonomia-erkidegoko organo autonomikoari jokabide horien inguruko prozedurari amaiera emateko hartutako akordioen eta ebazpenen berri emango die, bai instrukzio-fasean zein ebazpen-fasean.»*

**Hamaikagarren xedapen gehigarria. Estatuko administrazio orokorraren antolaketa eta funtzionamenduaren apirilaren 14ko 6/1997 Legea aldatzea.**

Estatuko administrazio orokorraren antolaketa eta funtzionamenduaren apirilaren 14ko 6/1997 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian, 1. apartatuan aipatzen diren erakundeen artean ondorengoa erantsi da: 1. *«...Lehiaren Batzorde Nazionala».*

**Hamabigarren xedapen gehigarria. Ustezko arau-hausteak jakinaraztea Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Lehiaren Zuzendaritzaren kanpoko komunikazio-kanalaren bidez.**

1. Edozein pertsona fisikok eman dezake lege honen arau-hausteak izan daitezkeen ekintzen edo ez-egiteen berri Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Lehiaren Zuzendaritzaren kanpoko komunikazio-kanalaren bidez.

2. Informatzaileek egindako arau-hausteen jakinarazpena ez da salaketatzat hartuko, lege honen 49. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, ez eta isunaren ordainketa salbuesteko edo murrizteko eskaeratzat ere, lege honen 65. eta 66. artikuluen ondorioetarako.

3. Komunikazioa era anonimoan egin daiteke. Bestela, informatzailearen identitatea gordeko da, eta informazio hori agintaritza judizialari, Ministerio Fiskalari edo ikerketa penal, diziplina edo zehapen baten esparruko administrazio agintaritza eskudunari soilik jakinarazi ahal izango zaio.

4. Lehiaren Zuzendaritzaren kanpoko komunikazio-kanalaren bidez lege honen aurkako arau-hausteen berri ematen duten pertsonek eskubidea izango dute arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteko eta ustelkeriaren aurkako borrokatzeko legean aurreikusitako laguntza- eta babes-neurriak hartzeko.

5. Kanpoko komunikazio-kanalaren bidez jakinarazpena jaso ondoren, Lehiaren Zuzendaritzak erregistratu egingo du, eta identifikazio-kode bat esleituko dio. Kanpoko komunikazioen erregistroa Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko langileentzat soilik den datu-base seguru eta sarbide mugatuko batean egongo da, Lehiaren Zuzendaritzaren titularrak behar bezala baimendurik. Datu-base horretan, jasotako komunikazio guztiak erregistratuko dira, eta datu hauek beteko dira:

a) Harrera-eguna.

b) Identifikazio-kodea.

c) Egindako jarduerak.

d) Hartutako neurriak.

e) Itxiera-data.

6. Jaso eta hamar egun baliodun igaro baino lehen, Lehiaren Zuzendaritzak jakinarazpena jaso izanaren adierazpena egingo du, non eta jakinarazpena anonimoa ez den edo informatzaileak ez dion espresuki uko egin ikerketari buruzko komunikazioak jasotzeari.

7. Lehiaren Zuzendaritzak egiaztatuko du jakinarazpenak lege honen arau-hausteen zantzu izan daitezkeen gertaera edo portaerak azaltzen dituen. Azaldutako gertaerak beste organo batzuen eskumenekoak badira, agintari eta erakunde eskudunei helaraziko dizkie, eta informatzaileari jakinaraziko dio, salbu eta komunikazioa anonimoa bada edo informatzaileak uko egin badio Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren jakinarazpenak jasotzeari. Lekualdaketa hori egingo da informatzailearen identitatearen isilpekotasuna gordetzeko adierazitako bermeei eusteko moduan.

8. Informatzailea Babesteko Agintaritza Independentea, A.A.I. xedapen honetan aipatzen diren informatzaileei laguntza-neurriak emango dizkie, eta zehapen-araubidea aplikatuko du, babes-neurriei dagokienez. Babes-neurri horiek arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteko eta ustelkeriaren aurkako borrokatzeko legean daude aurreikusita.

9. Aurreko apartatuak lehiaren arloko agintaritza autonomikoen informazio-kanalei ere aplikatuko zaizkie.

**Lehen xedapen iragankorra. Formalki hasitako prozedurak.**

1. Debekatutako jokabideen inguruan lege hau indarrean sartu baino lehen hasitako zehapen-prozedurak hasitako unean indarrean zeuden xedapenen arabera izapidetu eta ebatziko dira. Kasu guztietan iraungitzat joko dira Lehiaren Defentsarako uztailaren 17ko 16/1989 Legearen 4. artikuluan esandakoa betez aurkeztutako eskabideak.

2. Kontzentrazioen inguruan lege hau indarrean sartu baino lehen hasitako kontrol-prozedurak, hasitako unean indarrean zeuden xedapenen arabera izapidetu eta ebatziko dira.

3. Aurreko apartatuetan aipatzen diren prozedurak izapidetzean, Lehia Defendatzeko Auzitegiari eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuari egiten zaizkion. erreferentziak, hurrenez hurren, Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluari eta Ikerketa Zuzendaritzari egindakoak direla ulertu beharko da.

**Bigarren xedapen iragankorra. Lehiaren Batzorde Nazionala eratzea.**

1. Lege honen seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa hala izanik ere, Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren lehendakaria eta bertako kideak Lehiaren Batzorde Nazionaleko lehendakari eta kontseilariak izango dira, beren agintaldia amaitu artean, eta gero ezin izango dituzte berriz kargu bererako izendatu.

2. Lehiaren Batzorde Nazionala osatzen duten kideen kopurua lege honen 20.b) eta 33.1 artikuluetan xedatutakora egokitzeko, sei kontseilarira arteko murrizketa gutxika-gutxika egingo da, hau da, Lehia Defendatzeko Auzitegiko lehendakariaren eta kideen agintaldia amaitu ahala, hain zuzen ere aurreko apartatuan zehaztutako moduan.

3. Kontseilari berriak izendatzeari, geratzen den kontseilari kopurua sei baino gutxiagokoa den unetik ekingo zaio.

4. Lege hau indarrean sartzen denetik hiru hilabeteko epean, Ikerketen zuzendaria izendatuko da. Izendapen hori egiten ez den artean, lehia defendatzeko zuzendari nagusiak bere eginkizunak burutzen jarraituko du.

**Xedapen indargabetzailea.**

1. Lege honen bidez indarrik gabe geratzen da Lehiaren Defentsarako uztailaren 17ko 16/1989 Legea, eta baita lege honetan aurreikusitakoarekin bat ez datozen maila bereko edo apalagoko gainontzeko xedapen guztiak ere.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa hala izanik ere, eta lege honetan xedatutakoaren kontra ez doazen neurrian, eta gobernuak erregelamendu berriak onartzen ez dituen artean, indarrean jarraituko dute ondorengo biok: batetik, abenduaren 21eko 1443/2001 Errege Dekretuak, Lehiaren Defentsarako uztailaren 17ko 16/1989 Legea garatzen duenak, kontzentrazio ekonomikoak kontrolatzeari dagokionean; bestetik, Lehiaren Defentsarako uztailaren 17ko 16/1989 Legea garatzen duen martxoaren 28ko 378/2003 Errege Dekretuaren I. kapituluko 2. eta 3. artikuluek, II. kapituluko 14 eta 15. artikuluaren 1.tik 4.era arteko apartatuek, eta III. Kapituluak (kategorien araberako salbuespenak, baimentze bereziak eta Lehiaren Defentsarako erregistroa arautzen dira horietan).

**Azken xedapenetako lehenengoa. Eskumen-tituluak.**

Lege hau Konstituzioaren 149.1.13. artikuluaren babesean eman da.

Aurrekotik salbuetsita daude ondorengo arauak:

Lehen xedapen gehigarria, Konstituzioaren 149.1.5. artikuluaren babesean eman baita.

12. artikuluaren 3. eta 16. apartatuak, eta bigarren, zazpigarren eta bederatzigarren xedapen gehigarriak, Konstituzioaren 149.1.6. artikuluaren babesean eman baitira.

23. artikulua, Konstituzioaren 149.1.14. artikuluaren babesean eman baita.

**Azken xedapenetako bigarrena. Araugintzako gaikuntza.**

1. Gobernuak eta Ekonomia eta Ogasun ministroak, lege honetan aurreikusitakoaz bat eta bakoitzak bere eskumenen esparruan, lege hau garatu eta betearazteko beharrezkoak izango diren erregelamendu mailako arauak emateko ahalmena izango dute.

2. Zehazki esanda, baimena ematen zaio Gobernuari, 6 hilabeteko epean lege hau garatuko duten erregelamenduzko xedapenak eman ditzan, ondorengo arlootan: prozedurak, garrantzi gutxieneko jokaeren tratamendua, eta kartelen aurkako borrokan lankidetza eskainiko duten enpresekin erabiliko den errukitasun-sistema edo isun-ordainketa salbuesteko edo isunaren zenbatekoa murrizteko bidea zehaztea.

3. Era berean, baimena ematen zaio Gobernuari, aldez aurretik Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostena jaso ostean, lege honen 8. artikuluan ezarritako atalaseak alda ditzan, errege-dekretu bidez. Dena den, Lehiaren Batzorde Nazionalak hiru urtean behin balorazioa egingo du, atalase horien aplikazioa zertan den jakiteko, eta beharrezkoa bada, Gobernuari horiek aldatzeko eskatzeko.

4. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseilua eratu eta hiru hilabete igaro ostean, Ministroen Kontseiluak, Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostena jaso ostean, batzorde horren estatutuak onartuko ditu, errege-dekretu bidez, eta estatutu horietan Lehiaren Batzorde Nazionalaren funtzionamendu eta jarduera-erregimenari buruzko kontu guztiak jasoko dira, lege honetan aurreikusitakoekin bat beharrezkoak direnak. Bereziki ondorengo kontuak zehaztuko dira estatutuetan:

a) Lehiaren Batzorde Nazionalaren egitura organikoa,

b) dituen organoen artean eskumenak banatzeko modua,

c) langileen erregimena.

5. Era berean, Gobernuari baimena ematen zaio errege-dekretu bidez Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren egiturari buruzko araudia alda dezan, lege honetan aurreikusten den egitura instituzional berrira egokitzeko.

**Azken xedapenetako hirugarrena. Indarrean sartzea.**

1. Lege hau 2007ko irailaren 1ean sartuko da indarrean.

2. Aurreko apartatuan esandakoa hala izanik ere, legen honen 65 eta 66. artikuluak horiek garatuko dituen erregelamenduak indarra izatean sartuko dira indarrean.